

Kultura

'Erolution' diskoa aurkeztuko du Ghetto taldeak martxoaren 29an, Plateruena Kafe Antzokian >11



Ardo Saltsan azoka, bisitarien gustagarri

Ardo eta delicatessen azokak bihar zabalduko ditu ateak Landako Gunean. Euskal txerria eta gin-tonica dira nobedade nagusiak. > 3

Profesionalerako atea izaten jarraitu gura du Cafés Baqué-Campos taldeak > 19

Cafés Baqué-Conservas Campos taldeak 16 txirrindularigaz ekin dio denboraldiari. Iaztik zazpi txirrindularik jarraitzen dute; tartean, Paul Usabel atxondarrak. Taldea txirrindulari gazteekin eta esperientziadunekin osatuta dago. Aurten nazioarteko hainbat lasterketa lehiatuko ditu, 23 urtez azpiko Lieja-Bastogne-Lieja klasikoa, esaterako. Taldearen helburu nagusia txirrindulariei afizionatuetatik profesionalerako saltoa ematen laguntzea da, txirrindularientzako erakusleho izatea.



DURANGO ARDO SALTZAN
ETORRI TA DASTAU
VII. ARDO FERIA
ETA DELIKATESSEN
TOKIA LANDAKO GUNEA MARTXOAK 15
WWW.TURISMODURANGO.NET

Zornotza > 2

Urte amaieran ekingo diote anbulatorio berria eraikitzeari

Garai > 2

Espainiako bandera ipini dute udaletxe bakoian

Atxondo > 4

Argiteria kableak eta estolderia lapurtu dituzte azken asteetan

Durangaldea > 6

Gaztelua auzoan 1,1 km-ko tunela eraikitzen hasi dira

Herririk herri

> ZORNOTZA



A. Agirrebeitia zinegotzia, J. Etxebarria Osakidetzako zuz., D. Latxaga alkatea, J. Darpón sailb. eta A. Madariaga zinegotzia.

Urteko azken hiruhilekoan ekingo diote osasun zentroa eraikitzeari

Zentro berriak 18.000 zornotzar artatuko ditu, eta 4.000 metro koadro izango ditu

> JONE GUENETXEA

Jon Darpón Osasun sailburua, Jon Etxebarria Osakidetzako zuzendari nagusia eta David Latxaga alkatea bildu ziren atzo, Zornotzako osasun zentro berriaren inguruan berba egiteko. Batzarraren ostean, proiektu berria eraikiko duten orubea bisitatu zuten. 1.730 metro koadroko azalera duen orubea Zornotzako

San Migel eta San Juan kaleen elkargunean kokatua dago. Darponek azaldu duenez, "osasun zentro berri baterako oso kokapen ona da".

Osasun zentro berriaren 18.000 herritar artatuko dituzte. 2014ko azken hiruhilekoan eraikitzen hastea aurreikusitako aurreratu du sailburuak. Eraikinak lau solairu izango ditu, eta guzti-

ra 3.814,35 metro koadroko azalera hartuko du.

Jaurlaritzako arduradunek diotenez, martxoan plan funtzionala berrikusiko dute, eta iraila baino lehen obra esleitu dute. Epeak betez gero, osasun zentro berriko lanak 2016ko bukaeran amaituta egongo dira. Bi urteko epean, beraz, anbulatorio berriaren proiektua errealitate bihur-

tzea dutela helburu jakinarazi dute.

Zerbitzu anitzasuna

Anbulatorioak eskainiko dituen zerbitzuen inguruko informazioa jakinarazi dute. Batetik, arreta gunea izango du. Bestetik, lehen arretarako gunean, 14 familia medikuntzako kontsultategiak izango dituzte dagozkien erizaintza kontsultategiekin batera. Pediatria arloan, pediatriako kontsultategi bi eta erizaintza pediatrikoko beste bi izango dituzte, edoskitze gela eta guzti. Gainera, proba osagarriak egiteko eta odola ateratzeko gunek ezarriko dituzte. Emakumeen beharrezanez, ginekologia zerbitzua, emagina eta erditzea prestatzeko gimnasio zerbitzua eskainiko dituzte. Era berean, errehabilitaziorako lekua prestatuko dute.

Jon Darpón Osasun sailburuak Zornotzako udal arduraduneri bileran azaldu dienez, mantentze-lanak jasagarriagoak izateko eta ingurumena errespetatzeko mekanismoak izango ditu eraikinak: "Obrak aurtan hastea albiste ona da guztiontzat: Osakidetzak inguruan ematen duen zerbitzua hobetzea eragingo du, eta udalak aspalitik egindako eskaerari erantzungo dio". Gainera, Latxagari Osakidetzagaz lankidetzan aritzea eskertu dio. Izan ere, udalak anbulatorioa eraikitze orubea Osakidetzari utzi dio.

Sei txakur topatu dituzte, tratu txarrak jasanda

> J.G.

Orube batean txakur batzuk zaunka eta beste txakur batzuen gorpuzkiak jaten zebiltzala baieztatu zuen joan zen zapatuan udaltzaingoak. Bizirik zeuden sei txakurrak albaitarien esku utzi zituzten, eta hildako bi txakurren gorpuzkiak eraman zituzten. Azaldu dutenez, "argi ikus zitekeen gainerakoek janda zeudela". Atestatua guardiako epaitegira bidali dute, animaliak bertan behera utzi eta tratu txarrak ematea leporatuta.

Jesuitak RetoAlcoako finalean da

> JOSEBA DERTEANO

Durangoko San Jose Jesuitak ikastetxeko *Janzia* taldea RetoAlcoa hezkuntza programako finalista geratu da. Hamabigarren aldi honetan, 241 taldek eta 16 eta 24 urte arteko 700 ikasle parte hartu dute. Lau hilez proiektu baten garapen osoa diseinatu dute. Bizkaiko hainbat taldegaz batera, Alacant, Asturias eta Galiziakoak heldu dira Madrilen apirilaren 10ean jokatu den finalera.

> GARAI

Espainiako bandera ipini dute Garaiko udaletxean

Udaletxera birritan heldu da Espainiako bandera ipintzeko agindua; azkenean eskegi egin dute

> MARKEL ONAINDIA

Garaiko udaletxean Espainiako bandera ipini behar izan dute. Beste hainbat udaletara antzera, Garaikora ere bandera ipintzeko agindua heldu zen, eta azke-

nean eskegi egin dute. Gontzal Sarrigoitia alkateak adierazi du birritan heldu zaiela agindua. Lehenengoa iaz izan zen, eta ipintzen ez zela ikusita, beste agindu bat bidali dute aurt-

gobernetik. Oraingo honetan argazki eta guzti, legea ez dela bete argudiatzeko.

Espainiakoa bakarrik ez

Joan zen astean ipini zuten Espainiako bandera udaletxeko balkoian. Alboan, Garaiko bandera, ikurrina eta Europako bandera ere bai. Sarrigoitia alkateak azaldu du gobernaren ordezkariak argazki bat bidaliko dutela bueltan, testu batez lagunduta.



Espainiako bandera Garaikoagaz, ikurrinagaz eta Europakoagaz ipini dute.

Laguntzaileak:

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa:
946 232 523
Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2014ko martxoaren 14a,
12. urtea - 537. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Joseba Derteano, Markel Onaindia, Amaia Ugalde eta Maialen Zuazubiskar.
Maketazioa: Eider Alberdi.
Zuzentzaileak:
Jon Ander Urkiaga.
Argazkilariak: Kepa Aginako, Zaldua Fuertes.

> DURANGO

Euskal txerria eta gin-tonica Ardo Saltsan azokako nobedadeak

Landako Gunean antolatuko dute azoka, bihar

> JONE GUENETXEA

Ardo eta delicatessen azokak zentzumen guztiak piztuko dizkie, bihar, Landako Gunera hurreratzen diren bisitariei. Goizean, 11:00-15:00, eta arratsaldean, 17:00-21:00, irekiko dituzte ateak. Olio, urdaiazpikoa, izokin eta hegaluze ketua, gazta, antxoak, ostrak, kafea eta ardo izango dira dastagai. Besteak beste, Valderrama olioak, Sierra Morena de Córdoba urdaiazpikoa, Tostadora kafea, Karmelo Toja antxoak, Garmesan gazta, eta Keia izokin eta hegaluze ketua izango dira azokan.

Ardoari dagokionez, eskaintza zabala izango da azokaren zazpigarren aldia. Hainbat upategitatik ekarritako 100 ardo beltz, zuri eta apartsu dastatzeko aukera eskainiko dute. Gainera, Itsasmendi eta Mendraka txakolindegien produktuak nabarmendu ditu antolakuntzak.

Euskal txerria dastagai

Aurtengo edizioko nobedadeetako bat euskal txerriaren produktuak izango dira. Txorizoa, solomoa eta urdaiazpikoa momentuan bertan moztuta banatuko dute. Antolatzaileek azaldu dutenez, "bertako txerri arraza bi galdu egin dira, eta arraza hau ezagutzera ematea da asmoa".

Dastaketak egiten diren espazioan, Durangoko Ai Ama tabernakoek gin-tonicaren sekretuak argituko dituzte. Hainbat ginebra eta tonika motakin espermentatuko dute, eta espeziakin nahasten ere irakatsiko dute.

Beste berrikuntzetako bat Valderramak arbekina olibekin osatutako olio izango da. "Obamak ere erosten du olio hori", azaldu du Iñaki Uribe Saltsan Caterineko arduradunak.

Sarrerak 15 euro balio ditu. Bertaratzen direnek, dastaketarako kita jasoko dute: eskura izango dute kopa, triptiko informatiboa eta ardoen zerrenda dagokien salneurriekin. Delicatessen produktuak eta momentuan prestatutako miniatura-sukaldaritzako jakiak txartelen bidez erosi ahal izango dira.

Antolatzaileek diotenez, proiektu honen berezitasunak ardoa, miniatura-sukaldaritzak, delicatessen produktuak, olio eta kafea uztartzea, bertan produktuak erosteko aukera eskaintzea, eta kalitatezko produktuak biltzea dira.

Aurten ere, Durangoko Turismo Bulegoarekin batera Ardo Saltsan programa turistikoa osatu dute. Pakete berean, ostatua, gosaria, azokako sarrera eta Durangotik bisita gidatua bildu dituzte.

Gasteizerako linean kontrol publikoa egotea gura du EH Bilduk

EH Bilduk kritikatu du linearen esleipen berria jasoko duenak eskumen berezia edukiko duela

> M.O.

EH Bilduren arabera, Durango-Gasteiz autobus linea hobetzeko egindako promesak ez dituzte beteko. Arabako Garraio diputatu Alicia Ruiz de Infantek adierazi zuen esleipen berri itxaron beharko zela zerbitzua hobetzeko. Alsa enpresak 2015era arteko baimena dauka, eta hilabete honetan atera behar ei dute zerbitzua berriro lehia-kerara. Baina, EH Bilduk kritikatu du esleipen berria jasoko duenak eskumen berezia edukiko duela, orain arte lez: "Erabateko autonomiarekin kudeatzen du zerbitzua egungo enpresak. Berak ezartzen ditu ordutegiak, salneurriak... eta eskusibotasuna dauka".

Horregatik, alegazioak aurkeztuko ditu EH Bilduk. Aitor

Torre batzarkide bizkaitarrak eta Patxi Martinez de Albeniz arabarrak eman dute horren berri prentsaren aurrean. Esleipena programa-kontratua deitzen den sistemagaz egitea gura dute: "Gure ustez, linearen kontrol publikoa bermatzeko era bakarra da". Durangoko Udaleri, Amankomunazgoari eta Bizkaiko Foru Aldundiari ere alegazioak egitea eskatu die EH Bilduko kideek.

Autobus linea horregaz lotuta hainbat kexa egin izan dituzte erabiltzaileek. Durango udalbatzar batera joan ziren horietako bi, 160 erabiltzailearen izenean, udalari inplikatu dadi- la eskatzeko. Eta horren ondorioz etorri da eztabaida Araban. Iaz, Otxandioko herritarrek ere protestak egin zituzten.



1.200 lagun bildu zituen iaz Ardo Saltsan azokak.



GURE IKASLEEN AHOTAN



"Praktika guztiak nire etorkizuneko irakasle profila eraikitze lagungarriak dira"

Leire Sagastagoia durangarra Lehen Hezkuntza graduko 4. maila, Hezkuntza Bereziko ibilbidean ikasten ari da MONDRAGON UNIBERTSITATEko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean (HUHEZI)



Zergatik aukeratu zenuen lehen hezkuntzako ikasketak? Bigarren batxilergoan egin neban begirale kurtsuak bideratu eban nire etorkizunera begira bideratuko eban aukera. Hasierako buru hausteak eta ezjakintasan behin gainditu nebazanean, hezkuntza bereziko gradua egingo nebala argi neukan. Horretarako, Bolonia proiektuak eskatzen eban bezala, hezkuntza bereziko ikasketak burutzeko beharrezkoa zan lehen hezkuntzako ikasketetan murgiltzea, ondoren ibilbidea aukeratzeko.

Eta zergatik HUHEZI-MONDRAGON UNIBERTSITATEAn? HUHEZIn sartzeko bi arrazoi nagusi neukazan, alde batetik jendearen ahotik entzun ne-

bazan iritziak, eta beste alde batetik hezkuntza bereziko gradua bertan egoalako. Jendearen ahotik entzundako dana positiboa izan zan, hala nola, metodologia berritzailea, prozesuan oinarritutako ebaluazioak... Jendearen iritzian oinarritu eta bertan matrikulatzea erabaki neban.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizi izandako esperientzia? Orain arte bizi izandako esperientzia berezia eta bitxia izan da. Nire txikitako ikastola batetik salto egin behar nebala pentsatzeak beldurtzen ninduan, jende barria, ikasketa barriak... Unibertsitateak eskaintzen daben ikasle aberastasunak, ikasketa desberdinak, bizipenak... esperientzi ikaragarriak bizitzeko aukera eman deustie.

Gainera, unibertsitateko ikasgaien artean, praktikak izan dodaz, praktika guztiak nire etorkizuneko irakasle profila eraikitze lagungarriak bihurtuz.

Zelan definituko zenuke huheziren hezkuntza eredua? HUHEZIn daukan hezkuntza eredua ezberdina da eta ezberdintasun horrek aberasten dau! Hezkuntzarekiko daukan ikuspegi desberdin horretan oinarritzean, bereiak erabiltzen daben metodologia, ebaluazioa, material... guztia ikasleei egokituta dago, ikasleen etorkizunera, hain zuzen ere. Ikaslea oinarri dala kontuan hartuz, ebaluatzerako orduan, unibertsitateak prozesuan oinarritutako ebaluazioan sinesten dau.

> DURANGO

Iazko Lilakrosean, Tabirako saskibaloi taldekoak lekukoa erroten.

Berdintasunaren alde korrika egingo dute domekan, Lilakrosean

Lilakroseko lekukoa herriko 24 elkarteren ordezkariak eroango dute txandaka

> MARKEL ONAINDIA

Martxoaren 8aren harira egitarau luzea prestatu zuten Durangon, eta domekan emango diote amaiera Lilakrosagaz. Berdintasunaren alde korrika egingo dute durangarrek, 12:30ean, Ezkurdin hasiko den lasterketa berezi horretan. Ekimen herrikoa da, eta herritarrez gainera eragile sozialen parte-hartzea ere bultzatu dute antolatzaileek. Lasterkarien aurretik lekukoa joango da, eta herriko 24 elkarteren ordezkariak eroango dute txandaka.

Emakumeek eta gizonek parte hartu ahal dute Lilakrosean. Adinerako ere ez dute mugarik ipini, eta ume zein helduak animatu dituzte korri-

ka egitera. 2006an ospatu zuten lehenengoz Lilakrosa, eta ekitaldi arrakastatsua izan ohi da urterik urtera, jendetza batzen duena. Iazko edizioan, esaterako, 400 lagunek parte hartu zuten.

Lilakrosean korrika egiteko beren-beregi ateratako kamiseta solidarioa eskainiko dute

Kutsu solidarioa

Lilakrosean korrika egiteko beren-beregi ateratako kamiseta solidarioa eskainiko dute

antolatzaileek lasterketa hasi aurretik, 11:30 bueltan. Borondatearen truke eskuratu ahal dute korrikalariak, eta modu horretan jasotzen duten dirua ekintza solidarioerako erabiliko dute. Izan ere, berdintasun ikuspegiaz gainera, kutsu solidarioa ematen saiatzen dira beti. Aurten, emakume palestinarrei emango diete dirua.

Andraguneak, 5 urte

Martxoaren 8aren harira ekitaldi ugari antolatu dituzte egunotan. Joan zen barikuan, esate baterako, Andragunearen bosgarren urtemuga ospatu zuten, eta zapatuan manifestazioa egin zuten Durangoko kaleetatik zehar, besteak beste.

Patinatzaileak taldean ibiliko dira bihar

Patinatzaileak elkartzeko hitzordu bat egitea erabaki dute; bihar, goizeko 10:30ean batuko dira, Ezkurdin

> M.O.

Patinatzaileek taldean ibiltzeko aukera edukiko dute bihar. Izan ere, Durango Kirolak erakundeak praktika horretarako deialdia egin du. Kirol mota hori asko zabaldu da azken urteetan herrian, eta zaleak elkartzeko hitzordu bat egitea erabaki dute. 10:30ean batuko dira Ezkurdin, eta pare bat orduko buelta bat emateko asmoa daukate. Ibilbidea begirale batek lagunduta egingo dute. Negua amaitzear,

eguraldi ona datorrela-eta, kalean eta doan patinatzeko gonbita egin diete herritarrei.

Ikasteko aukera

Bestalde, erakunde berberak adierazi du patinatzeko ikastaro bi antolatu dituela apirilera. Bat hasierakoa izango da, ibiltzen ikasteko, eta bestea maila hobetzeko. Frai Juan Zumarraga institutuan egingo dituzte praktikak. Haurrek zein helduek parte hartu ahal dutela azaldu dute antolatzaileek.

Hastapeneko ikastaroa martitzenetan eta eguenetan garatuko dute, eta hobekuntzakoa astelehenetan eta eguaztenetan. 19:30etik 21:00etara emango dituzte eskolak. Durango erroldatuek 40 euro ordaindu behar dute, eta gainerakoek 52. Izena eman gura dutenek www.durangokirolak.net webgunera jo dezakete.

Eguraldi ona datorrela-eta, kalean eta doan patinatzeko gonbita egin diete

> ZALDIBAR

Terrazen kokapena arautu gura du gobernu taldeak

Tabernariekin batzartu dira asteon udalaren ordezkariak; terrazen ordenantza osatu gura dute

> ITSASO ESTEBAN.

Tabernetako terrazen kokapena arautu gura du gobernu taldeak, 2011. urtean onarturiko ordenantza berrizteko. Arantza Baigorri alkatearen berbetan, udalaren betebeharra da "tabernariak terraza ipintzeko duten nahia aintzat hartzea, eta oinezkoen zein elbarrien mugikortasun eskubideen alde egitea".

Hirigintza Batzordean lan dute ordenantza berrirako

proposamena, eta herriko 13 tabernatako arduradunak batzar batera deitu dituzte udal arduradunek, asteon. Lau tabernarik hartu zuten batzarrean parte. Euren terrazak kokatzeko proposamena egin diete tabernariari, udaleko aparejadoreak egindako lanean oinarrituta.

Gobernu taldeak adierazi du asmoa duela terrazen ordenantza berria martxo amaierako udalbatzarrean proposatzeko.

> OTXANDIO

200 landare landatuko dituzte Zuhaitz Egunean

Bihar, 10:00etan ipini dute hitzordua, Astikurutzeko elurzuloaren ondoan, zuhaitzak landatzeko

> JOSEBA DERTEANO

Zuhaitz Eguna ospatuko dute bihar, Otxandion. Bizkaiko Foru Aldundiaren bitartez zuhaitz landarak jaso dituzte, eta, bihar, 10:00etan, Astikurutzeko elurzuloaren inguruan ipini dute elkargunea. Bertatik San Bernabe inguruan dagoen baso batera joango dira, eta han landatuko dituzte zuhaitzak; aurreko urteren batean ere inguru berera

joanak dira. Ahal duten herritar guztiek aitzuarra eraman dezatela eskatu dute udaleko arduradunek. Aurten 200 landare inguru landatuko dituzte; gehienak pagoak dira, baina haritzak ere badaude tartean. Den-denak zuhaitz mota autoktonoak dira.

Ekimenaren ostean, hamaitaketa egongo da bertaratzen diren guztientzako, udalak ordainduta.

> IURRETA

Udaberriko tailerretarako izena emateko epea zabalik

Kimuak aisialdi elkarteak apirilaren 22, 23, 24 eta 25erako antolatu ditu udaberriko tailerrak

> AITZIBER BASAURI

Kimuak aisialdi elkarteak udaberriko tailerrak antolatu ditu aurten ere, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Datorren apirilaren 22, 23, 24 eta 25ean izango dira udaberriko tailerrak, jakinarazi dutenaren arabera.

2003tik 2009ra bitartean jaiotako neska-mutilei zuzendutakoak dira prestatuko dituzten tailerrak. Goizez izango dira, 09:30etik 13:30era bitartean, hain zuzen ere. Ibarretxe kultur etxean eman dezakete izena tailerretan parte hartzeko interesa dutenek. Bestela, kimuak@kimuak-elkartea.com helbide elektronikoa erabili daiteke edo honako telefono zenbaki honetara deitu 665 892 723.

Udaberriko tailerretan parte hartzeko 10 euro ordaindu

beharko dira, Kimuak elkarteak azaldu dutenez.

2003tik 2009ra bitartean jaiotakoei zuzendutakoak dira prestatuko dituzten udaberriko tailerrak

Udalekuak

Kimuak aisialdi elkarteak 2009an sortu zen, eta, udaberriko tailerrak ez eze, udalekuak ere antolatzen dituzte elkarte partaideek: udaleku finkoa, ibiltaria eta aurreko biak uztartzen dituena. Uztailean begira prestatutako eskaintza da udalekuena. Informazio gehiagorako: kimuak@kimuak-elkartea.com

> ATXONDO

Argiteria kableak eta estolderia tapak ostu dituzte azken asteetan

> J.D.

Azken bi-hiru asteetan 150 bat metro argiteria kable eta hainbat estolderia tapa ostu dituzte herrian. Material horietako kobrea da lapurrei interesatzen zaiena, ondoren saltzeko. Argiteria kableak Ziarreta auzoan eta Anboto kalean ostu dituzte. Estolderia tapak, aldiz, herri osoan zehar desagertu dira: "Azken asteetan askotan izan dugu horrelako lapurreten berri", dio Rosa Elizburu alkateak. Ertzaintzan salaketa ipini dute, eta ibili izan dira ingurutik, baina lapurrek kontrolatuta dituztela uste dute. Kaleko argien kasuan, argindarra egunez moztzen dute, martxan ez daudenean, eta, ondoren, gauz kableak ostu. Udal arduradunek dei egin diete herritarrei ohikoak ez diruditen jardunbideak udal txan jakinarazteko.

AMONG

‘THE BEST’

OPTIONS IN THEIR CLASS **WHATCAR?**“Euren motakoen artean,
aukerarik onenatarikoak dira”**TEKNOLOGIA HOBEA**Erabateko lotura SYNC teknologiarekin.
Ahotsaren bidezko kontrol sistema.**PREZIO HOBEAK****FORD FIESTA**
8.590€**FORD FOCUS**
12.990€**Ford Fiesta eta Focus gama; batez besteko kontsumo konbinatua 3,6tik 7,2ra (l/100 km).
CO2-aren isurtzea 95 g/km-tik 160 g/km-ra**

Fiesta 3p Trend 1.25 60 zaldi-potentzia (44kw) airearekin eta CD MP3 irratiarekin; Focus Trend 1.0 EcoBoost (EcoBoost Motorrak %20ra arte hobetzen du kontsumoa, motor arrunt batekin alderatuz gero) Auto-Start-Stop 100 zaldi-potentzia (74kw) 5P Barneko Paketea eta Style Paketearekin. Eskaintzek honako hauek dituzte: BEZa, I.M., garraioa, sustapen deskontua, Aport. Emate eta deskontua FCE Bank plc S.E. entitatearekin finantzatzearren, "Vente a Ford Credit" kanpainaren bidez; gutxiengo iraunkortasuna 24 hilabete. Gobernuaren PIVE planaren ekarpenari lotua. Penintsulan eta Balear Uharteetan baliozko, hilabete amaierara arte. Ez da bateragarria bestelako deskontuekin. Posible da argazkiko modeloa eta eskaintzakoa bat ez etortzea. Auto biak, euren motakoen artean, aukerarik onenatarikoak direla aipatu zuen WhatCar? gidak 2013ko maiatzean.

www.fordkondia.com**FORD KONDIA**

Otaola etorb. EIBAR

Tel.: 943 207 650

ZIORLA AUTOAK

Santamaña kalea, 19 IURRETA

Tel.: 944 815 135



ford.es

> DURANGALDEA

Gaztelua auzoaren inguruan tunela zabaltzen hasi ziren, joan zen astean.

Salaketen gaintik, aurrera doa Gerediaga-Elorrio autobidea

Gerediaga-Elorrio autobideko obra %42 garestitu dela kritikatu du EH Bilduk

> MARKEL ONAINDIA

Azken hilabeteetan kritikak eta salaketak jaso arren, Gerediaga-Elorrio autobideko obrak aurrera doa. 2012. urtearen amaieran ekin zioten lurra mugitzeari, eta obraren inguruko azkeneko albisteak joan zen astean zabaldu zuten: Gazteluan lehenengo tunela zabaltzeko lanak hasi dituzte, 1.141 metro izango ditu. Auzo horretan 594 metroko beste tunel bat ere zulatuko dute, eta bien arteko lotura lez tunel faltsu bat egingo dute. Obrak

hasi zirenetik, batez ere lotuneetan ibili dira lurra mugitzen, eta zubi bi eraiki dituzte dagoeneko.

Aurrekontuak gora?

Egitasmorako 225 milioi euroko aurrekontua zehaztu zuen Aldundiak, eta EH Bilduk kritikatu du 93 milioitan handitu dela kopuru hori. Beraz, azpiegitura %42 garestitu dela dio koalizioak. Horretarako arrazoiak zeintzuk diren galdetu dio Itziar Garamendi Herri Lanetako diputatuari, baina ez ei du eran-

tzunik jaso. EH Bilduren ustez, beharrezkoa da argitzea, Europako Batasunak kontratu publikoen garestitzeaz ohartarazi duelako berriki: "Txosten baten arabera, halako jokaerak ustelkeria ahalbidetzeko erabiltzen dira sarritan".

Horretaz gainera, EH Bilduk dio autobidea finantzatzeko itzalpeko bidesariaren metodoa erabiliko dela. Sistema horregaz, enpresek bere gain hartzen dute obra, eta administrazioak geroago bueltatzen dio eraikun-

tza eta mantentze-lanengatik sortutako zorra. Horrek egitasmoa askoz gehiago garestituko lukeela esan du koalizioak. Salaketa horiez galdetuta, Herri Lanetako komunikazio kabineteak guztiak gezurtatu ditu. Kabinetearen arabera, EH Bilduk obra kontratua ez du "begiratu ere egin", eta polemikan gainerako alderdien babesik barik geratu da.

Obretan ere polemika

EH Bilduk lehenago ere egin izan du berba obraren inguruan. Azaroan prentsaurrekoa eman zuen Atxondoko Udalean, irregulartasunak salatuz. Obrak "beharrezko neurri eta kontrolak hartu barik" hasi zirela esan zuen koalizioak. Desjabetutako eremuetatik kanpo babestutako arbola batzuk moztu zituztela esan zuen; ganaduarentzako iturburua moztu zutela eta ur zikinak iragazteko sistemarik ez zutela ipini ere bai.

Bestalde, Abadiñon, Arteagazar baserriaren alboan legez kanpoko hormigoi fabrika bat zabaldu zela jakinarazi zuten koalizioek urtarrilean. Proiektuan ez dela agertzen, eta zerikusi zuzenik eduki ezean, udal baimena behar duela esan zuten. Fabrika horretako aktibitatea geratu, eta espedientea zabaltzea eskatu zioten gobernu taldeari. Jose Luis Navarro alkatearen esanetan, EH Bilduren salaketaren ostean, udaleko aholkulariak azterketa bat egingen dabilta, eta emaitzak eduki arte ez du erabakirik hartuko.

SEI HANKAKO MAHAIA

JUAN JOSE GASTAÑAZATORRE
PP

**Erabateko berdintasunaren alde**

Espainiako bost emakumetik batak sufritu izan du indarkeria fisikoa edo sexuala. Hori adierazi du Oinarrizko Eskubideen Europako Batasuneko Agentziaren txosten batek. Gainera, txostenaren arabera, biktimen %20k bakarrik salatu zuen gertakaria polizia-etxean. Datu hotzak eta kezka-garriak dira; gaur egun oraindik, XXI. mende bete-betean, jarrera sexista jakin batzuk indarrean daudela adierazten duten datuak, datu ulertezinak, azken finean.

Baina aurreiritzi, estereotipo eta rol sozialak ere badaude, zeintzuek gure gizartean emakumeak duen papera iraintzen dute. Eremu eta maila guztietan. Baita udal mailan ere. Hori horrela izanik, Durangoko PPN beharrezkotzat jotzen ditugun neurri batzuk luzatu dizkiogu gobernu taldeari, aukera berdintasunean oinarritutako gizarte bat lortzeko; argi dugulako tartean dauden eragile guztien konpromiso garbia behar dela, gaitz honekin bukatzeko.

Guk uste dugu Emakumeen Nazioarteko Eguna ez dela egun bakar batera mugatu behar. Gogoeta eta ahalegin etengabe bat behar du, amestutako berdintasuna ez dadin ameskeria hutsean geratu; diskriminazioari ez zaio inolako lekuri egin behar, sexua aitzaikiatza hartuta.

Horretarako, udalak azterketa bat jarri beharko luke martxan. Emakumeek herritartasun eskubidea gauzatzeko dituzten trabak zeintzuk diren jakin behar dugu, eta udalak neurriak jarri behar ditu abian emakumeek euren bizitza gizonezkoen baldintza berdinetan gara dezaten.

Azken batean, gure esku dago berdintasun erreal eta ikusgarri bat lortzeko behar diren mekanismoak antolatzea. Izan ere, horrela soilik utziko ditugu atzean, gaur egun oraindik ere, emakume izate hutsagatik emakume askok sufrizten dituzten injustiziak.

**Erredakzioan itzulia*

Prekarietatearen eta pobreziaren kontrako martxa egin dute

Durangaldean hasi zen martitzenean eragile eta sindikatuen Gune plataformak deitutako martxa

> M.O.

Euskal Herriko hainbat eragile sozial eta sindikal batzen dituen Gune plataformak deituta, pobreziaren eta prekarietatearen kontrako martxa egingen dabilta egunotan. Durangaldean hasi zen martxa hori martitzenean;

Ermutik irten zen, Zaldibar, Berriz, Abadiño, Durango eta Iurretatik igaro, eta Zornotzan amaitu zuen ibilbidea. Durangon elkarretaratzea egin zuten martxako parte-hartzaileek, eta Zornotzan manifestazioa. Hilaren 20an amaituko da martxa



Iurretara heldu zen martxa, martitzenean.

Iruñean, eta manifestazioa eta ekitaldia iragarri dituzte.

Plataforma horretakoek Eskubide Sozialen Karta sortzeko prozesua ere hasi dute, eta Durangon eta Zornotzan martxan

daude eztabaidak. Durangon martxoaren 19an izango da hurrengo batzarra, 18:30ean, Piondo Etxean. Zornotzan, hilaren 20an elkartuko dira berriro, 19:00etan, Zelaietan zentroan.



15

SAREAREN INGURUKO TAILER IREKIA
larunbata
10:00 - 13:00

19

Ikuspegi feministatik kulturaz / sorkuntzaz hausnartzen: EMAROCK dokumentala asteazkena
19:00

26

SAREA IRUDIKATZEN TAILERRA
asteazkena
19:00



Kontsumitzaile bulegoan 1.000 kexa jaso zituzten iaz

> M.O.

Durandaldeko Amankomunazgoaren kontsumitzailearen bulegoan 1.000 kexa inguru tramitatu zituzten 2013an. Horietako gehienak, %45, telefonia konpainien ingurukoak izan ziren. Aurreko urteetan ere antzera gertatu izan da, sektore hori izan da erreklamazio gehien sortu izan duena. Fakturazioak, portabilitate eskaerak eta tarifa gehigarriak izan dira kexa gehienetako arrazoiak.

Hornitzaileen arloan argiari, gasari eta urari lotutako kexak aurkeztu dituzte erabiltzaileek. "Neurribako fakturak" eta baimendu bako konpainia aldaketak izan dira batez ere herritarren haserrearen eragile.

Bestalde, tramitazio horietaz aparte, kontsumitzaileen esku-bideekin lotutako beste 1.000 kontsulta ere landu zituzten bulegoan. Eroski eta Fagorren ekarpenen arazoetatik kontsultak ugaritu direla azaldu dute arduradunek.

Euskararen erabilera bultzatuko dute tailerren bidez

> M.O.

Euskara Elkarteen Topagunea euskararen erabilera soziala indartzeko *Zergatik ez?* izeneko tailerrak garatzen dabil Euskal Herrian zehar. Durandaldean, Amankomunazgoak eta Berbaro euskara elkarteak antolatuko dituzte tailer horiek. Batez ere, gazteei begirakoak izango dira, DBHko 4. mailako ikasleentzat eskainiko dituzte-eta. Duran-

Batez ere, gazteei begirako tailerrak izango dira, DBHko 4. mailako ikasleei zuzendutakoak

galdeko 11 ikastetxetan egingo dituzte tailerrak, arduradunek azaldu dutenez. Horretaz gainera, jantokietako begiraleek eta gurasoek ere parte hartzeko aukera edukiko dute ikastaro batzuetan.

Bakoitzaren hizkuntza joeraren eraginaren eta garrantziaren inguruan hausnartzea da tailerragaz daukaten helburu nagusia. "Eguneroko bizitzan euskaldun askok lehen berba gaztelaniaz edo frantsesez egiten du. Baina euskaldunok hizkuntza bat edo beste hautatzea ez da zorizkoa".

> ELORRIO



Argiñetan lanak egingo dituzte herritarren laguntzagaz.

Argiñeta aztertzeke hirugarren fasean boluntarioek parte hartu ahalko dute

Maiatzetik ekainera egingo da Argiñetako azterketaren hirugarren fasea

> MARKEL ONAINDIA

Argiñetako nekropolia aztertzeke prozesua aurten amaituko dute. Maiatzetik ekainera bitartean garatuko da ikerketaren hirugarren eta azkeneko fasea, eta lan horietan herritarrek parte hartu ahalko dute Arkeologi Museoko taldeagaz batera. Horregatik, boluntarioak batzoko deia egin dute arduradunek. "Aurtengo kanpainan boluntarioei parte hartzeko aukera emango zaie, indusketek herritarrengan sortu duten interesari bide berri bat emategatik".

Maiatzaren 5etik ekainaren 20ra bitartean egongo dira beharrezko Argiñetan. Aste bakoitzeko, gehienez, bost boluntario hartuko dituzte. Eta parte har-

tzeko gutxieneko epea astebetekoa izango dela esan dute. Udaletxeko erregistroan eman behar dute izena interesdunek, apirila amaitu baino lehen.

2012an hasi zen azterketa arkeologikoa, Elorrioko Uda-

Udaletxeko erregistroan eman behar dute izena interesdunek, apirila amaitu baino lehen

lak eta Bizkaiko Foru Aldundiak sinatutako akordio bati eskerrak. Bertan topatutakoak, mendetan atzera, han zelan bizi

ziren ikusteko balio du. Hainbat motatako hilobiak dauzkan kanposantu bat azaleratu dute, eta zurezko zutoinak zeuzkaten etxeen arrastoak topatu dituzte. VIII. eta XI. mendeen artean kokatu dituzte eraikuntza horiek. Baina, eremuan hainbat material ere agertu da; tartean, VI. mendeen datatu duten beirazko ontzi bat.

Argiñetaren balioa nabarmendu izan dute adituek eta erakundeek. Eusko Jaurlaritzak, adibidez, interes kulturalerako ondasun izendatu du. Martxan dagoen egitasmoaren helburua Argiñeta berreskuratzea da. 2015erako atontzea, eta informazioa emateko prestatzea da indusketen arduradunen asmoa.

Berdintasun teknikari postua lehiaketara ateratu udalak

> M.O.

Elorrioko Udalak Berdintasun teknikaria behar du, eta berori kontratatzeke oposizio bidezko lehiaketa egingo dute. Postu hori betetzen duenak Berdintasun Saileko plangintzak diseinatu dituzte, eta jarraipena egingo die. Gainera, udaleko beste politikeetan ere genero ikuspegia txertatzea izango da bere ardura.

Herrian sortu ahal diren bereizketa arazoaren aurrean lan egingo du. Kasu horiek identifikatu eta konpondu ahal izateko neurriak proposatzea eskatuko diote Berdintasun teknikariari. Arlo horretan ohikoak izaten dira formazio saioak, eta horiek antolatzeke ardura emango diote. Baldintzak www.elorrio.net webgunean eskegi dituzte.

Sinadura bilketa

Berdintasun teknikariaren lanpostuaz eztabaida egon izan da legegintzaldi honetan. Hasieran, EAJko gobernu taldeak adierazi zuen Amankomunazgoagaz kudeatu gura zuela zerbitzu hori. Baina Bildu ez zegoen ados, eta Txoko Feminista ere ez. Eragile horrek 600 sinadura batu zituen, teknikariaren postua berma zedila eskatzeko, eta iazko ekainean mozioa aurkeztu zuten. Udaltzak aho batez onartu zuen proposamena. Ondorioz, postu hori egonkortzea erabaki zuten.

Naturbideak sarearen lehenengo zatia eraiki dute

Elorrioko natur eremuak lotu gura ditu udalak

> M.O.

Udalak martxan dauka Naturbideak egitasmoa. Herriko natur eremuak lotu gura ditu, eta obraren lehenengo fasea amaitu berri du. Prentsa oharrean azaldu du, eremu asko direnez, lanak zatika egingo direla. San Agustin, Zenita-San Juan eta

Santiago inguruneetan egin dituzte lanak: sasiak kendu, landareak sartu, inausketak, errekek garbitu, bideak egokitu eta informazio seinale zein panelak ipini dituzte. 109.000 euroko aurrekontua eduki du udalak, Jaurlaritzak eta Aldundiak lagunduta.

Eskolarako eta ikastolarako sarrerak hobetzen

> M.O.

Herri eskolarako eta Txintxirri ikastolako sarreraren irisgarritasuna hobetzeko lanak egingo dituzte datozen asteetan. Udalak prentsa oharra bidali du, obra bien inguruko informazioa emateko.

Lehenengo ikastetxearen kasuan, Eskola Bidea izeneko proiektua amaituko dela azaldu dute. Horren baitan, aparkalekutik irteteko bigarren bidea sortuko dute ibilgailuentzat, eta ate berri bat ere eraikiko dute.

Bigarrenari dagokionez, udalak hitzarmena sinatu du ikastolagaz. San Jose kaleko espaloia zabalduko dute, eta ikasle eta gurasoen segurtasuna bermatzeko beharrezko den zabalera emango diote.



Durangaldeko Behargintza
Euskaldekako Garapen Agentzia
Agencia Comercial de Desarrollo



Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa
Mancomunidad de la Merindad de Durango



HOBEZUZ
Partenarietza berria gure irabazkeraren bidean
Laguntza eta Prestakuntza: Taldeak, Funtzioak



Lanbide
Euskal Enplegu Zerbitzua



EUSKO JAURLARITZA GOBERNU VASCO

DOAKO IKASTAROAK

Ostalaritza arloko langileentzako eta langabetuentzako

Data: 2014ko maiatzaren 5etik 19ra arte
Ordu kopurua: 21
Ordutegia: 16:00etatik 19:00etara astelehenetik eguaztenera
Tokia: Durangaldeko Behargintza
Izena emateko epea: 2014ko apirilaren 11ra arte

Plaza kopurua dela eta, lanean daudenen parte-hartzea, eskaera orriaren dataren arabera erabakiko da.



Interesa baduzu deitu hurrengo telefonora: **946 232 522**
Durangaldeko Behargintza - Laubideta, 6 - Durango
www.mdurango.org

> ABADIÑO

Trenbideak hartzen zuen espazioa atontzeko modua aztertzen dabilta

Ahalik eta lasterren espazio hori erabilera publikora zabaldu gura du udalak



Bertan behera utzita, abandonatuta egon da trenbidearen inguru hau azkenaldian.

> ITSASO ESTEBAN

Euskal Trenbide Sarearekin harremanetan ipini orduko, Abadiñoko Udala datuak bildu, eta aukerak aztertzen dabila azaldu du, asteon, Jose Luis Navarro alkateak. Hainbat proposamen helaraziko dizkio gobernu taldeak ETSri, alkateak

azaldu duenez, lurperatu arte lehen trenbideak hartzen zuen espazioa atontzeko.

Ahalik eta lasterren atondu gura du udalak Inyektametal enpresaren eta Traña-Padura industriagunearen arteko gunea. Espazio hori berreskuratzea da asmoa, auzotarrek gunea erabil-

tzeko gutxieneko baldintzetan ipintzea: berdegune edo aisialdirako gune bezala atontzea.

Izan ere, Jose Luis Navarro Abadiñoko alkateak esan duenez, ETS Euskadiko trenbide azpiegituren kudeatzaileak adierazi du ez daukala gune horren berrurbanizazioa egiteko

dirurik. Horregatik, Navarro alkatearen berbetan, Abadiñoko Udala aztertzen dabilen aukerak kosturik ekarriko ez luketenak dira. "Ahalik eta gehien erraztuko diegu dena, ezetz esaterik eduki ez dezaten: ez da erraza izango, baina horretan dihardugu lanean". Gobernu taldearen helburua da soluzioak gasturik ez eragitea, ez ETSri, ezta Abadiñoko Udalari ere.

Baina alkateak jakinarazi duenez, oraindik ez dute zehaztu Abadiñoko Udalaren eta ETS-ren arteko batzar horren data, eta gobernu taldeak ez du aurreratu gura izan zer aukera dabilen aztertzen.

Bertan behera utzita egon da Traña-Matienako trenbidearen inguruko eremua, azkenaldian. Alkateak azpimarratu duenez, "lurpeko geltokiko lanak amaitu arte zain egon gara, eta erdi utzita egon da espazio hori". Lanak amaitu ostean hasi behar ziren gunea atontzen, eta Navarrok adierazi duenez, "behin lanak amaituta hartu dugu sorpresa, ETSk konponketa horiek egiteko dirurik ez daukala erantzun digunean".

Errota kultur etxean batzarra egin zuten hilabete hasieran, gai honi buruzko informazioa zabaltzeko. Gobernu taldeak ETSrekin batzarra egiteko asmoa agertu zien auzotarrei.

> IZURTZA

Bihar jokatuko dituzte pala txapelketako finalak

> JOSEBA DERTEANO

Hilabete eta erdiko ibiliaren ostean, zapatu honetan jokatuko dituzte Izurtzako Pala Txapelketa amateurreko finalak. Goizeko 11:00etan bigarren mailako finala jokatuko dute, eta 12:00etan lehen mailakoa.

Nagusien mailako finalak erabakita daude dagoeneko: Jabi Iriondok eta Miguel Alvarezek Iñaki Undagoitia eta Jon Arriagaren aurka jokatuko dute, lehiatua espero den finalean.

Bigarren mailako finalak gaurko finalerdietan erabakiko dituzte, 20:00etatik aurrera. Lehenengo partiduan Beñat Albizurik eta Ibai Gerenabarranak Jose Luis Martinez eta Mikel Rodriguez izango dituzte kontrario. Martinezek 62 urte ditu, baina oraindik asko jokatzen du palan, antolatzaileek azaldu dutenez. Ondoren, Jon Unzuetak eta Jon Jauregik izurtzako bikote gazte baten kontra jokatuko du: Anartz Ajuriaren eta Zigor Gallastegiren kontra. Unzueta eta Jauregi dira faborito, baina izurtzarrak sorpresa ematen saiatuko dira.

Autodefentsa feminista tailerra bihar, Errotan

> I.E.

Martxoaren 15erako, biharko, antolatu du Abadiñoko Udalak emakumeentzako autodefentsa tailerra: autodefentsa feminista buruzko ikastaro trinkoa. Helburu bikoitzagaz antolatu du ikastaroa udalak; emakumeek eraso sexistetatik babesteko teknikak ikasi ditzaten, batetik, eta euren buruenganako konfiantza irabazi dezaten, bestetik.

Gogoetarako tartea

Isa Bernal psikologo eta emakumeen aurkako indarkeria gaitan adituak eskainiko du ikastaroa, eta hainbat gairi buruzko gogoetara bultzatuko ditu parte-hartzaileak: indarkeria sexistaren arrazoiez, erasoei taldeka aurre egiteko premiaz, mendekotasun emozionalaz zein maitasun erromantikoaren ondorioez, esaterako.

Zortzi orduko ikastaroa izango da, eta Traña-Matienako Errota kultur etxean antolatu dute. 10:00etatik 14:00etara, eta, 15:30etik 19:30era eskainiko dituzte ikastaroko saioak.

Ikastaroa doakoa den arren, parte hartu gura duenak izena eman beharko du Abadiñoko Udaleko helbide honetan: berdintasuna@abadiano.org.

Udalak Jaurlaritzari eskatu dio zor dion dirua buelta diezaiola

Matienako anbulatorioko lanen kostuaz dihardute

> I.E.

Ohar bidez jakinarazi du Abadiñoko Udaleko gobernu taldeak "milaka euroko" zorra bueltatu diezaiola eskatzeko auzia jarriko diola Osakidetza. Traña-Matienako osasun zentroan egin zituzten lanek udalari sorturiko gastuak bueltatzeko eskatuko diote Eusko Jaurlaritzari.

Oharrean azaltzen denez, plaza pribatu baten konponketa-gatik 23.000 euro zor dizkio Osakidetza Abadiñoko Udalari, eta azken urteotan udalak ordaindu ditu osasun etxeko beste hainbat konponketa ere; teilatua, kasurako. Zor diona bueltatzea eskatu dio Udalak Osasun Sailari. Abadiñoko Udaleko gobernu taldeak dioenez, "komunitateko hileroko gastuak ere ordaindu barik dauzkate".

2010eko abenduan Matienako jubilatuen egoitzaren lokala Osakidetza lagatzea onartu zuen Abadiñoko osoko batzarra, eta Abadiñoko gobernu taldeak azaldu duenez, "nahiz eta lokala Osakidetzaren eskuetara

igaro, jabetza aldatetaren eskriturak ez ziren egin. Geroztik eskrituratan udala agertzen da bai lokal horren, bai antzinako osasun zentroko lokalaren jabe".

"Ez entzunarena"

Jose Luis Navarro alkateak adierazi duenez, urteak daramatzate Osakidetzari idatziz zein telefonoz Traña-Matienako osasun zentroko lokala bere izenean eskrituratu dezala eskatzen. Eta Navarroren berbetan "Osakidetzako arduradunek ez entzunarena egiten dute komunitateko gastu orokorrak eta eraikinean egiten diren lan guztiak ordaintzen jarrai dezagun. Penagarria da udal bati horrelako tratua ematea, batez ere botere gehiegikeria hori administrazioak berak egiten duenean, ahalmenik ez duen udal baten kaltetan".

Jose Luis Navarro alkateak dio tamalgarria dela Eusko Jaurlaritza izatea udalaren zorduna, eta "itsu-itsuan" errefusatzeko osasun zentroa dagoen barrutia eskrituratan bere izenean ipintzea.

> MALLABIA

Hondakin ontzietan eta konpostaz auzo batzarretan

> JONE GUENETXEA

Mallabiko Udalak bilera sorta antolatu du, hondakin ontzien kokapen berriari eta autokonpostari buruz auzoetako herri-tarrek duten iritzia ezagutu guran. Ildo horretan, auzoetako batzarren deialdiak jakinarazi dituzte. Martxoaren 17an Gea-Longa auzoetako bizilagune-

Udalak hondakin ontzi berrien kokapenaren eta autokonpostaren inguruko iritzia ezagutu gura ditu

kin bilera deitu dute, auzoko elkarteetan, arratsaldeko 19:00etan.

Goitako auzokideen txanda izango da martxoaren 19an, Zumarra elkarteetan, 19:00etan. Areitioko bizilagunen batzarra martxoaren 24an izango da, kultur etxean, 19:00etan. Azken batzarra Berano eta Arandoño auzoetako bizilagunekin egingo dute: martxoaren 26an dute hitzordua, Artixeko elkarteetan, 19:00etan.

> MAÑARIA

Kantu poteoa egingo dute berriro barikuan

> M.O.

Mañarian kantu poteoa egiteko ohitura hartu dute azkenaldian. Udaleko Kultura Salletik proposatu zuten ekimena, herriko giroa sustatzeko asmoz. Hilean behin irteten dira kantu poteoa, eta datorren barikuan ere, hilaren 21ean, ekimenagaz jarraituko dute. Ainara Areitio zinegotziak azaldu du pozik daudela orain arte edukitako harreragaz: "Hilero-hilero parte hartzen dutenen kopurua handitzen doa". Otsaileko poteo girotuan 30 bat lagunek parte hartu zutela azaldu du.

Gainera, hasieran musikari laguntzarik barik hasi ziren kantuan. Baina, azkeneko bietan txistulari baten eta panderojole baten laguntza eduki dute.

Barikurako hitzordua

Datorren barikurako hitzordua Herriko tabernan ipini dute, arratsaldeko 19:30ean. Handik tabernaz taberna joango dira giroa alaitzeko asmoz. Antolatzaileek bertaratzeraz animatu dituzte herritar guztiak, eta musika tresnarik edukiz gero, eroateko deia egin dute.

> BERRIZ

34 urte eta gero, lanean da udal kontseilua

Berrizko premia sozialak lantzeko batzartzen da taldea; hausnarketa hitzaldia izan du asteon

> AMAIA UGALDE

Duela 34 urte, Berrizen 4.200 biztanle eta mediku bakarra zuten. Egoera horri erantzuteko hasi zen martxan udal kontseilua. Ordutik hona gizarte arloko gaiak eztabaidatu, eta proposamenak egiten jardun du behar-rean. Atzo, egindako ibilbideari buruz berba egin, eta hausnarketarako eguna izan zuten. Hitzaldian izan ziren EHUKo Parte Hartuz masterreko Imanol Telleria eta udal kontseiluko José Chávez.

Izen luzea dauka udal kontseiluak: Osasun, Ongizate, Kooperazio eta Inmigrazio Kontseilua. Gaur egun kide hauek daude bertan: Gure Izarra elkarte, Gure Izerdia elkarte, Caritas, Berriz Ere elkarte, Saharako elkarte, marokoar kolektiboa, errumaniar kolektiboa eta senegaldar kolektiboa. Norbanakoak

eta udal ordezkariak ere batzartzen dira kontseiluan, hilero.

Kontseiluaren eginkizunak

Taldeak urtez urte egonkortu diren hainbat ekintza antolatzen ditu, Kulturarteko jaia eta Saharako elkartasun karabana, esaterako. Elikagai Bankurako boluntario lana ere egiten dute. Aurten izaera sozialdun egutegia eratu gura dute, Lurraren Nazioarteko Eguna edo Berrizen nesken lehen eskola sortu zeneko urteurrena gogoratzeko.

Hanane Jhibak Hazid marokoarraren arabera, kontseiluak "elkar ezagutzeko bideak erraztu ditu". José Chávez hasieratik da bertako kide. Ilusioz gogoratzten ditu lehen urteak: "Arazo guztiak amaituko zirela pentsatzen genuen". Premia dagoen artean ilusioz lanean jarraituko dutela esan du Chavezek.



Kontseiluko Chávez eta Jhibak, Marije Garcia gizarte langilearekin eta alkatearekin.

'Berrizko emakumeen ahozko historia' liburua kalean da

> A.U.

Udaletxean eta Kultur Etxean eskuragarri dago *Berrizko emakumeen ahozko historia* liburua. Itsaso Aramendik eta Oier Iriondok egindako lana da, eta Berrizko emakumei egindako elkarrizketen bidez, 1937tik 1975era bitarteko hainbat pasarte batu dituzte liburuan. Berriz 1936 gogoratzeko kultur elkarteak lagundu die testigantzak batzen.

Berrizko emakumei egindako elkarrizketen bidez, 1937tik 1975era bitarteko historia batu dute

Erljioa, familia barruko harremanak, eskola, lan mundua, aisialdia, ezkontza, gerraostea eta errepresioa daude liburuko gaien artean. 2010ean Berrizko Udalak kaleratutako beka bati esker osatu dute liburua. Garai hartan EAE-ANV alderdiko zinegotziek, euren dieten erdia horrelako ikerlan batera bideratzea erabaki zuten.

Argazki erakusketa

Berriz 1936 gogoratzeko elkarteak, bere aldetik, erakusketa antolatu du Berrizko emakumeen argazki zaharrek. Argazkiez gainera, argazkietan agertzen diren emakumeen izenak batu ditu elkarteak. Martxoaren 28ra arte Kultur Etxean egongo da erakusketa.

> DURANGALDEA ASTEON

Berbaro taldearen esperientzia bertatik bertara ezagutu du Celtic Neighbours elkarteak

TRUKEA > Irlandan, Galesen eta Eskozian kultura eta hizkuntza gaelikoa sustatzeko eta bultzatzeko lanean dihardu Celtic Neighbours elkarteak. Bertako ordezkari bat Durangaldeko euskalgintzaren jarduna bertatik bertara ezagutzera etorri zen atzo. 'Anboto' astekariaren, Berbaro euskara elkartearen eta Plateruena Kafe Antzokiaren berri jaso zuen Meic Llewellyn galestarrak, eta zelten esperientzia partekatu zuen.



Elorriko alargunen egoera berbagai eguaztenean

IKERKETA > Alargunen elkartearen enkarguz, Elorriko emakume alargunen ikerketa soziodemografikoa egin dute, eta emaitzak aurkezteko berbaldea egongo da eguazten honetan, martxoak 19, 18:30ean. Kultur etxean izango da hitzaldia, eta kolektiboaren egungo egoeraz hitz egingo dute: herrian zenbat alargun dauden, eta zelan eta zein zailtasunekin bizi diren landuko dute, esate baterako.

Bizikleta tolesgarriekin Bilbao-Bilbao martxa egingo dute

ZIKLOTURISMO MARTXA > Durangaldeko talde batek 115 kilometroko Bilbao-Bilbao martxa egingo du domekan, Brompton bizikleta tolesgarriekin. Durangoko Bizibike dendaren ekimena da. Bizikleta tolesgarriak ibilbide luzeetarako ere baliagarriak direla erakutsi gura dute horrela dendako arduradunek. Domeka goizean, Bilbon irten, eta Plentzia, Sondika eta Mungiatik pasatuko dira.

Esklusio soziala Elorriko Multikirolean

Gaur egun esklusio sozialari aurre egitea ez da erraza, neurri ekonomiko gehienek gero eta pertsona gehiago uzten baitituzte bazterrean. Baina egoera batzuetan, inbertsio txikiak eginda, urrats handiak eman daitezke. Elorriko Multikirola proiektua da horren adibide.

Multikirola, genero, hizkuntza eta kirol ikuspuntutik proiektu inklusiboa da, eta baita ikuspuntu sozialetik ere: haurraren gaitasun fisikoa, maila soziala edo ekonomikoa edozein izanda ere, haur guztiak proiektuan lekua daukatelako. Proiektu honetan, udal talde, ikastetxe, guraso elkarte eta kirol talde guztiak bat egiten dute (baita eragile askok ere).

Ikastaro hasieran Multikirola proiektuan izena eman nahi zuten haurren artean, familia batzuek adierazi zuten ezin ziotela matrikularen gastuari aurre egin, eta zer egin du Elorriko Udalak? Ume horiek kanpoan utzi.

Elorriko Udalak Multikirola proiektuaren urteko ordainketa egingo du, beraz, kanpoan utzi dituzten haurrei parte hartzeko aukera emateak ez luke inolako gasturik eragingo.

Elorriko EH Bilduk arazo honi irtenbidea bilatu behar zaiola dio, egoera hau berehala konpon dadin. Eta, etorkizunean, arazo ekonomikoak dituzten familientzako zerbitzuaren prezioa berraztertutik beharko genuke.

Duela gutxi, lehendakariak esan du "pertsonak erreskatatzeko garaia dela". Bada, hemen dugu horretarako aukera paregabea. Guztiaren gainetik protagonistak Elorriko haurrak direlako. Ezin ditugu hezkuntzatik, euskaratik, kirolek eta lagunengandik baztertu.

Eta zuk, elorriar lez, zer pentsatzen duzu?

Jon Ander Gracia Upategui
Elorriko EH Bildu

Iritzia

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (farteak barne).

➤ Berbaz

Soraia Diez | Emozioarteko psikologoa | Zornotza, 39 urte

“Estresa kudeatzeko bi bide daude: egoera konpontzea edo onartzea”

Estresarekin bizitzen ikastea ez da erraza; Soraia Diez psikologoa estresak eragindako sentrazioak eta emozioak kudeatzen irakasteko mintegia zuzentzen du Zornotzako Zelaieta zentroan. Erabakiak hartzea ei da gakoa, erabakia ezer ez egitea izan arren



> JONE GUENETXEA

Garapen pertsonalaren gaineko mintegietan estresa izango duzue berbagai.

Ikastaroaren helburu nagusia pertsonak estresaren prozesua zelan sortzen den ulertzea da, hau da, noiz sentitzen duten estresa. Estresa pertsona bakoitzean ezberdina da. Izan ere, sentazio hori eragiten duen elementua pertsona bakoitzean ezberdina da. Pertsona batek estresa zelan sortzen den ulertzen badu, estres hori kudeatzeko erremintak erabili ahal izango ditu.

Estresa noiz bihurtzen da arazo?

Estresa garapen ebolutibo guztiaren ondorio da. Orain milaka urte ezinbestekoa zen bizirauteko. Estresa mehatxu baten aurrean ematen den erantzun inkontziente eta instintiboa da. Arrisku bat identifikatu eta gorputza martxan jartzen da. Sasoi hartan borrokan egin edo ihes egiteko erabiltzen zen. Arazoa da erreakzio instintibo horrek gure genetikan jarraitzen duela, baina psiko-sozialak dira gaur egun aurre egin behar izaten diegun arazo gehienak. Beraz, ezin dugu borrokatu ez eta ihes egin ere. Beraz, hori frus-

“

Estresa zelan sortzen den ulertzen badugu, estres hori kudeatzeko erremintak erabili ditzakegu”

tazio edo geldiarazitako energia bihurtzen da, eta antsietatea eta estresa sortzen dira. Lan edo familia arloan antsietatea sortzen dizun egoera bat baduzu, egoera hori kudeatu behar duzu; baina sarritan ez da jakiten zelan kudeatu.

Estresa arazoaren konponbideagaz zuzenean erlazionatuta dago, beraz.

Estresa kudeatzeko bi gako daude: egoera konpontzea edo onartzea. Ez dago beste biderik. Tailerrean estresaren oinarri teoriko guztia azaltzen dugu. Argi uzten dugu estresa buruaren eta gorputzaren arteko konexioa dela. Meditazioa erabiltzen dugu sentazio horiek gorputzean ku-

deatzeko, eta argi ikusteko zer egin beharko genukeen.

Gorputzak esaten diguna zelan irakurri dezakegu?

Gure gorputzak modu automatikoan funtzionatzen du. Gure burua leku batean eta gorputza beste batean balego bezala izango litzateke. Estimulu baten aurrean berdin erantzuten dugu. Batzuetan hau pentsatzen dugu: “Zergatik haserretzen naiz beti gauza honekin?”. Badakit gertatuko dela, eta ezin dut kontrolatu nire haserrea. Gorputzera heltzen da, eta erreakzionatu egiten du. Ondoren, gure buruak interpretatu egiten du. Beranduago emozioa dator: haserreak, negarrak, buruko minak eta tripako minak, adibidez.

Meditazioa erabiltzen duzue estresa kudeatzeko.

Meditazioak gorputza entzuten laguntzen digu. Gure buruaren behatzaile bihurtzen gara. Esate baterako, identifikatu dezakegu tripako mina sentitzen badugu, hau pentsatzen eta bestea sentitzen dugulako dela. Ezin da pentsatu sintoma bakartu bat denik. Gorputza entzun behar dugu, eta geure buruari galdetu gure inguruan zer gertatzen den estres hori sentitzen dugunean.

Estresa kontrolatzea posible da?

Kontrolak berak estresatu egiten du. Beraz, kontrolari buruz beharrezan, behatzeari buruz berba egin behar dugu. Behatu eta gero egin gura dugunaren inguruan jarrera bat hartu behar dugu. Nire buruaren eta nire erabakien jabe izan behar dut, erabaki hori ezer ez egitea izan arren. Nire ustez gakoa hauxe esatea da: “Ni neu naiz egoera honen aurrean ezer ez egitea eta elkarrekin bitzitzea erabaki duena”. Meditazioa erabili daiteke gure emozioen intentsitatea jaisteko.

Erabakiak hartzea edo ez hartzea erabakigarria da, beraz.

Mundua ulertzeko modua aldatu daiteke. Esate baterako, gustatzen ez zaidan lan bat badut, bi aukera ditut: lana aldatu dezaket, edo lan honek sortzen dituen emozioak kudeatu ditzaket. Emozio negatiboak positibo bilakatu ditzaket.

Gure bizitzan estresak duen eraginari behar besteko garrantzia ematen diogu?

Garrantzitsua da adi egotea. Pertsonok estres maila jakin bat jasateko gai gara. Pixka bat ona izan daiteke. Baina estres maila altuak ez dira osasungarriak,

eta beti ez gara hautemateko gai. Ehun kilometro orduko auto batean joango bagina bezala da. Badakizu abiadura mantentzea frenatzea baino errazagoa dela. Hala ere, abiadura horretan jarraituz gero, gasolina gehiago gastatzen duzu, autoa hondatu egiten da... Jende askori gertatzen zaio aktibitate maila altua mantentzen duela, eta egun batetik bestera ezin duela gehiago. Hala ere, badago bere burua behatzeko gaitasun handiagoa duen jendea ere, eta estres seinaleak arinago identifikatzen dituenek, ez da beheraldi horretara heltzen.

Zein ondorio izan dezake estresak?

Krisi batean sartu eta depresiora heltzeko arriskua egon badago. Beste ondorio batzuek ongizate pertsonalarekin zerikusia dute. Bizitzaren alde ona hautemateari uzten diot, beti alerta egoeran nagoelako, eta ez dut momentu onez gozatzen. Tentsioa sortzen dut familiako giroan. Harremanetan hausturak sortzen ditut. Gustuko ditugun gauzak egiteari uzten badiogu, atsekabea sortzen da. Osasuna, ongizatea eta zoriontasuna galtzea da, beraz, ondorio nagusia.

Ghetto | Josu Abaunza, Unai Abaunza, Mikel Urresti, Mikel Azkarate-Askasua eta Iñaki Urresti |

Julen Ardanza.

“Kantua eginda zegoela ematen zuenean, beste buelta bat gehiago eman diogu”

‘Erolution’ diskoa aurkeztuko du Ghettok martxoaren 29an, Plateruenean; Yoko Out taldea ere ariko da

> ITSASO ESTEBAN

Noiz eta zelan sorturikoak dira disko honetako kantak?

Mikel Azkarate-Askasua: Ghertzainak proiektua geldialdia izan zen sortzaile gisa. Horren ostean, Iñaki bueltatu zenean, heldu genion sorkuntzari. **Unai Abaunza:** Iñaki bueltatu zenean, Ghertzainaketik gentozen, kontzertuak ematek. Hori amaitu zenean sortu zitzaigun kantak sortzeko gogo. CD bat egin gura genuela argi geneukan, ez genekien arren zelakoa; zerbait berria nahi genuen.

Iñaki Urresti: 2012an buelta-

tu nintzen ni, eta 2013an hasi ginen CD berria sortzen. Aurrekoa baino bereziagoa egin gura genuen, eta presarik barik aritu gara. Gauzak sortzen joan dira, behar zuten denboran.

Gozagarria izan da sorkuntza?

U.A.: Aurreko diskoa behartua goa zen, zelanbait, eta libreago jardun dugu honetan. Koadro bat balitz bezala joan gara koloreak gehitzen. Nik uste dut CD honetan beste paper bat hartu dugula kantua sortzerako orduan: eszena bat imajinatu eta guztiz libre jardun dugu.

I.U.: Salto bat egon da aurreko diskotik hona. Kantak landuagoak dira; gustura egon gara sortzen, eta inspirazioa etorri da, baina ez gara konformatu lehenengo ideiaz. Kanta eginda zegoela zirudienean, beste buelta bat gehiago eman diogu.

‘Erolution’ kanta izan liteke diskoaren laburpena?

U.A.: Mikelek egindakoa da kanta horren letra, eta giro baten deskribapena da, zelanbait. Aurretik entzun bako terminoa da, *revolution* berbagaz jokatu ta sorturikoa, eta gustuko dugu.

Lehenengo CDan neuk egin nintuen letra guztiak, eta honetan gehiago gozatu dudala esango nuke, besteak beste, lan hori Mikelekin banatu dudalako, gogaitu barik jardun garelako.

Zelan eman duzu letrak sortzeko pausoa, Mikel?

M.A.-A.: Idaztea gustatzen zait, eta apur bat Unai bultzatuta hasi nintzen. Disko honetako bi-hiru letra neureak dira. Batzuk etxetik lotuta ekarri ditugu, baina beste batzuk lau esku-tara egin ditugu.

U.A.: Musikarekin egiten den

moduan, letrekin ere, ideia ekarri, eta denon artean moldatu dugu. Entsegu lokalean joan gara hainbat letra garatzen.

Ez da oso ohikoa gurean musika talde batek letrei horrelako garrantzia ematea.

U.A.: Guk gero eta garrantzi handiago ematen diegu letrei. Mikrofonotik lau lelokeria esateak edo adierazi nahi duzun hori esateak ez du zerikusirik.

M.A.-A.: Abestiaren parte handi bat letra da, eta nahiz eta gureak abstraktu samarrak ere badiren, mezu bat botatzek talde bezala definitzen zaitu.

U.A.: Letrekin ere koadroa marrotzen ibili gara: ezer zentsuratu barik, dena librean ateratzen utzi dugu. Baten batek esango du letrak ez dituela ulertzen, eta esango diogu hori dela nahi duguna. Ez da zertan dena ulertu!

Aurreko diskoarekin alderatuta, zer berritasun dakar honek?

U.A.: Nahasketa Azkaraten egin izana bada salto bat. Soinu aldetik beste indar eta freskotasan bat eman die kantei. Letretan, Ghettoagoa da. Diskoa biribilagoa denik ez dugu esango. Neur-tu dut, eta diskoak aurrekoaren erradio bera du [barrez], baina salto bat bada.


I.U.: Disko hobea da.

Zelakoa izango da Platerueneko aurkezpen kontzertua?

U.A.: Disko berriko kantak, aurreko diskoko beste hiru-lau kantaren moldaketak, eta bertsiotzuk joko ditugu.

M.A.-A.: Eta sorpresa bisualen bat ere bagabiltza prestatzen. Baina ez dugu aurreratuko!

U.A.: Etxetik hurbil eta soinu onagaz, Plateruenean aritzea aukera berezia da.



Ibai Etxebarriak egin du diskoaren diseinu lana.

Diskoaren azala bezala, koloretsua eta “irekia” da Ghettoaren musika

Zail egiten zaie Ghettokoei euren musika deskribatzea; mugarik ez dute nahi

Ibai Etxebarriaren diskoaren diseinua bezala, koloretsuak eta askotarikoak dira Ghetto taldearen *Erolution* diskoak. Iñaki Urrestiren berbetan, “kantak banan-banan entzunda, egia da ukitu desberdina duela kanta bakoitzak. Baina, era berean, egia da diskoak lerro bati jarraitzen diola: gure soinua da, Ghetto soinua. Nabaria dena da taldekide bakoitzak bere gustuko ekarpena egin gura duela. Horrela lortzen da itxuraz oso desberdinak diren zatiek batasun bat osatzea”.

Zail egiten zaie taldekideei egiten duten musika zelakoa den berbaz adieraztea. “Irekia” dela uste dute, batez ere, eta ez dute nahi estilo zehatz batera itxi. Ez dute mugarik nahi. *Erolution* kanta izan daiteke horren erakusle: brometan hasi zen Unai abeslaria reggae estiloko ahots jokoak egiten, eta emaitza gustatu zitzaenez, horrela utzi dute. Kontatu digutenez entseguetan jolasean ateratakoak dira kanta batzuen oinarri erritmikoak. Motibagarria zaie libre, mugarik barik

jardutea. Unai Abaunza taldekidearen berbetan, “oso urruti ailegatu zaitezke horrela”. Baina hautu bat egin du Ghettok: argitaratzen dituen kanta guztiak euskaraz izatea.

Durango, Intxaurre tabernan eta Hitz liburu dendan, Abadiñon Abarkateruena tabernan, eta Elorrión Parra tabernan ipini dituzte diskoak salgai. Interneten, Spotify eta iTunes plataformetan ere deskargatu daitezke kantak. Webgune berria ere sareratu dute: www.ghettotarrak.net.

> BERTSOLARITZA

Hasi dute zazpi eskualdeetako 50 bertsolari gaztek Bizkaiko sariketa

Martitzenean abiatu zuten Bizkaiko Bertsolari Gazteen BBK Sariketa



Bilbon egin zuten astelehenean sariketa aurkezteko prentsaurrekoa.

> ITSASO ESTEBAN

Jone Narbaiza Bizkaiko Bertsozale Elkarteko kideak, Juanjo Respaldiza Ikastolen Elkarteko bertsolaritza arduradunak, eta Bizkaiko azken bertsolari txapelketako irabazleak, Arkaitz Estiballesek, aurkeztu zuten sariketaren aurtengo edizioa.

Martitzenean abiatu zuten Bizkaiko Bertsolari Gazteen BBK Sariketa. "Bizkaiko bertsolari gazteenek jendaurrean jarduteko aukera izan dezaten" antolatu dute beste urte batez.

Markinan eta Zallan jokatu dituzte asteon sariketaren lehenengo bi saioak, eta, martxoaren

Markinan eta Zallan jokatu dituzte asteon txapelketaren lehenengo bi saioak

ren 18an, Algortan jokatu dute hirugarrena.

Iaz sariketaren irabazlea izan zenez, Durangaldeko taldea zuzenean igaroko da finalerdietara. Martxoaren 19an Durangoko institutuan jokatu duten saioan jardungo dira eskualdeko bertsolariak.

Iaz sariketa irabazi zenez, Durangaldeko taldea zuzenean igaroko da finalerdietara

Bizkaiko zazpi eskualdeetako bertsolariek hartuko dute sariketan parte: Arratia, Bilboaldea, Busturialdea, Lea-Artibai, Ipar-Urribi, Enkarterriak eta Durangaldekoak. 18 urte artekoak jardungo dira, batetik, eta 18 eta 24 urte artekoak, bestetik.

Ohi bezala, Bilboko Kafe Antzokiak hartuko du bertsolari gazteen sariketaren finala. Martxoaren 28an izango da hori, 19:00etan. Irabazleak 1.260 euroko saria eskuratuko du, eta 900 eurokoa bigarrenak.

GEURE DURANGALDEA

JON ANDER URKIAGA
Kazetaria



Euskal kontainer bati

Gure herrian hamaika zeresan eman duzu, urteak joan eta urteak etorri. Era guztietako albisteen foku izan zara. Erabileran hau eta hura eman dizute. Denek izan dute zure beharra. Hor zaude, edozein izkinatan. Denon bistan, baina diskrezioz betiere.

Aspaldion Kanpazarretik haragoko lurretatik eman duzu zeresanik. Batzuek maite zaituzte; beste batzuek ez nuke esango gorroto zaituztenik, baina zure lehengusu txikiagoak dituzte maiteago. Durangaldea ere kutsatzen hasiak omen gara *bosgarrenitis* horrekin. Oraindik, behintzat, epidemia arriskurik ez.

Azken asteotan, aldiz, beste afera bat tarteko izan duzu oihartzuna. Libre aritu omen zara hegaz hiriburuko zerruetan, alde batetik bestera; bero-berotan. Kale izkinako abandonutik eta anonimotatik atera zaituzte, eta kolapsaturik egon ohi diren errepideen erdian ez ezik, lur zati komodin honen aurrerabidea kolapsaturik ikusi nahiko luketen beste hainbat hedabidek famili argazkiko lehen planoan kokatu zaituzte.

Baina atzo, nire herrian, gizon bat jaten ikusi zintudan -baina izan zitekeen emakume, gazte zein haur-; zure ahoztarra zabaldu, eta barrura. Eta ez, ez da aurreneko aldia. Eta ez dut gustuko jarrera intolerante hori. Batere. Badakit zure osasuna edozeren gainetik jartzen duten horiek, eta horrenbeste maite zaituztenek, ez dizutela errietarik egingo. Zuk, antza, ez duzu zure gosearen errurik. Baina beste hainbat gizon-emakumek euren gosearena ere ez.

> MUSIKA

Aukeratu dituzte Durangaldeko maketa lehiaketako partaideak

Bederatzi talde ariko dira eskualdeko maketa lehiaketaren bigarren edizioan



The Mockers Durangoko taldea izan da, beste zortzi taldegaz batera, aukeratuetaiko bat.

> I.E.

Denetariko musika egiten duten Durangaldeko bederatzi talde aukeratu ditu epaimahaiak, Durangaldeko Maketa Lehiaketa

taren bigarren edizioan parte hartzeko. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, Baraia, Ekilibristak, Etorkezun Beltza, Hozten, Ilunbeltzean, Rusted,

Orion Child, The Mockers eta Tightleash taldeak izan dira hautatuak. Talde horiek ariko dira, Zornotzako Zelaieta zentroko zuzeneko emanaldietan.

Gaur, 22:00etan izango da lehenengo zuzeneko. Baraia, Rusted eta Etorkezun Beltza taldeek jardungo dute gaurkoan euren kantak zuzenean defendatzen. Beste sei taldeek, apirilaren 4 arte antolatuko dituzten beste kontzertu bitan joko dute.

Maiatzean izango da azken kontzertua: lehiaketa irabazten duten taldeek eskainiko dute emanaldi hori, eta ekitaldi horretan egingo dute lehiaketako sari banaketa ere.

Zornotza, Abadiño, Durango eta Iurretako udaletako gazteria sailek antolatu dute lehiaketa hau bigarren urtez. Iazko lehenengo edizioan, Atxondoko Kilauea hautatu zuten irabazle, eta aurkeztu berri du talde horrek bertatik sortutako *Sonichaos* disko berria.

Aurreratu dutenez, doako autobuz zerbitzua eskainiko dute Abadiño, Iurreta eta Durangotik, emanaldietara gerturatuzko.

Teatro Paraiso Erpurutxo

Martxoaren 16an - 18:00etan

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net

MARTXOAK 14 - 21:00etan 12 euro
EUSKARAZ BIZI - Bertso afaria
B. UGARTETXEA, A. ARZALLUS, I. ELORTZA

MARTXOAK 15 - 22:00etan 10/12 euro
GARI + JABIER MUGURUZA
MUSIKA KONTZERTUA

MARTXOAK 20 - 20:00etan 15 euro
KANTULAGUN
KANTUZALEENTXOKOA

Eguneko menua asteleheneetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

Hemen agertu gura badozu

deitu!

946 217 902

“Umeen erosotasuna buruan dela diseinatutako arropak eskaintzen ditugu”

Zirimola dendak umeentzako arropa organikoak eta ekologikoak saltzen ditu Durangon



> JOSEBA DERTEANO

Jaio berrietatik hamar bat urtera artekoentzako arropa organiko eta ekologiko saltzen du Zirimolak. Ziortza Zuluaga durangarra da bertako arduraduna. Arropak kotoi organiko egindakoak dira, eta horrek abantaila bi ditu: erosoak dira eta azalarentzat onuragarriak.

Noiz ireki zenuten Zirimola arropa denda?

Orain aste bi ireki genuen denda, baina 2013az geroztik Interneten gaude. Semea jaio zenean sortu zitzaigun ideia. Jasangarritasun irizpideak kontuan hartuta, egindako arropa organiko bilatu hasi ginen umearentzako, baina ez genuen ezer aurkitzen. Orduan, Interneten begira hasi ginen, eta horrelako produktuekin online denda bat sortzea bururatu zitzaigun.

Zer adin tarterako arropa saltzen duzue?

Jaiaberrietatik zortzi-hamar urtera artekoentzako arropa. Ba-

daude nagusiagoentzako arropak egiten dituzten markak ere. Jendearen eskakizunen arabera eskaintza doitzen joango gara.

Dendaren berezitasun bat da saltzen duzuen arropa organiko dela.

Arropa organikoak esan gura duena da kotoi organiko eginda dagoela. Beraz, kotoi haziak ez daude genetikoki moldatuta, eta ez da tindagai toxikorik erabiltzen arropak egiterako orduan. Arropa organikoak onuragarriak dira azalarentzat. Orain ume asko alergiekin eta azaleko arazoekin dabilta, eta horrelako arropak azalean ez dute ezelan gozatu egiten.

Irizpide ekologikoak aintzat hartzen dituen arropagintza mota lantzen duzue.

Bai, esaterako, uztari ezin zaio gehitu pestizidarik edo ongarrizko gairik. Bestalde, arropa organiko egiten duten markak ziurtagiri bat dute, arautegia betetzen dutela adierazteko. Ho-

rrek langileek baldintza duinean lan egiten dutela bermatzen du, edo arropak ez dituztela adin txikiekin egiten, herrialde askotan gertatzen den legez.

Arropa organikoaren beste abantaila bat da luzaroago irauten dutela.

Umeen arropak askotan garbitzen dira, egun batetik bestera, sarritan. Gurasoei asko irauten duten arropak interesatzen zaizkie, eta kalitate txarreko kotoiagaz egindako arropak kolorea joan egiten zaie, lastu egiten dira, eta zulotxoak sortzen zaizkie. Kotoi organikoak gehiago irauten du, eta, gainera, oso material leuna da.

Arropa erosoak ere badira.

Uste dut umeak heldu txikien moduan jantzen dituztela gaur egun. Eurei gustatzen ez zaizkien arropekin jantzen ditugu, eta sarritan deseroso joaten dira, hainbeste gauzagaz ia mugitu ezinik. Nire helburua umeak gustura erabiliko zituen

arropak bilatzea izan zen; hau da, erosotasuna oinarri dela diseinatutako arropak eskaintzea.

Arropa organikoak karuagoa da?

Nire ustez arropa organikoak ez da garestia, beste klaseetako arropak dira merkeak era susmagarrian. Merketasun horren atzetik zer dago? Horren atzetik kotoi transgenikoak dago, edo pestizidak, edo umeak eta langileak esplotatuta hirugarren munduan egindako arropa. Pestiziden harira, deigarri gertatu zaidan datu bat azpimarratu gura nuke: munduan egiten diren pestiziden %25 kotoi indusketarako erabiltzen da.

Arropa organikoan kotoia da material nagusia?

Gehienak ehuneko ehuneko kotoizkoak dira, baina baditugu marka batzuk birziklatutako poliesterragaz lan egiten dutenak ere. Beste marka batek arropak ez die etiketarik ipintzen, umei hazkura eragiten dielako. Horren ordez, datuak barrualdetik serigrafiatzen dituzte.

Nortzuk dira zuen hornitzaileak? Nori erosten diozue arropa?

Gero eta gehiago saiatzen ari gara inguruko enprekin lan egiten, bertako ekonomia sustatzen duten enprekin. Baina oraingoz gutxi daude. Jantzigintzako enpresarik gehienak atzerriara

joan dira. Euskal Herrian ez dago bat bera ere nik dakidala, eta Bartzelonan pare bat marka daude. Beste toki batzuetan ere apurka sortzen dabilta. Baina markarik gehienak Europako iparraldekoak dira: Suediakoak dira asko, eta Ingalaterrako pare bat ere bai. Ameriketako Estatu Batuetan, Kaliforniako marka batez ere lan egiten dugu, Mini & Maximus izenekoa.

Modaren eraginak nabaritzen dira?

Koloreetan batez ere, baina ez du zertan modari lotuta joan. Hori bai, gure beste berezitasun bat da unisex arropa dela gehien ekartzen duguna. Neskek era batera eta mutilak beste batera jantzi behar direla dioen topikoarekin apur bat apurto gura nuen.

Udaberria ate joka dator. Zelako arropa egongo da eskuragarri?

Oso freskoa eta kolore biziduna, konbinatzeko errazak diren formekin. Beti lez, oso erosoak, umeen mugikortasun osoa ahalbidetzen duena, eta serigrafikoki landutakoa. Horiek dira ezaugarri nagusiak.

Internet bidez hasi zineten www.zirimola.com gunean.

Gaur egun zelan daramazue Interneteko salmenta?

Gure helburua denda eta Interneteko salmenta erdi eta erdi eramatea da. Mundu osora saltzen dugu. Normalean, gehien Europara, baina joan zen astean Japoniara eta Hawaiira pakete bana bidali genuen. Internet bidez gero eta gehiago saltzen da.





www.zirimola.com

Arropa organiko eta toxikorik gabea

Kanpatorrosteta z/g 48200 Durango - Tel. 94 654 63 59 - info@zirimola.com

> ARGAZKILARITZA

Sorkuntza pertsonalari buruzko tailerra gidatuko du Jesus Micó.

Ekainean Durango argazkiz jantziko duen Begira Photo jaialdia, gertu

Argazkilari euskaldun gazteen lana zein, adibidez, Peruko eta Marokoko argazkilaritza garaikidea ezagutaraztea da aurtengo ekitaldiaren asmoa

> ITSASO ESTEBAN

Ekainaren 10etik 29ra izango dute Begira Photo jaialdia, Durangon, eta dagoeneko lotuta dauzkate antolatzaileek jaialdiaren programazio erakargarriko hainbat osagai. Hitzartuta dauzkate hainbat hitzordu. Aurtengo edizioaren zutabe nagusietako batzuk euskal sortzaile gazteen, eta Marokoko eta Peruko artista garaikideen lana ezagutarazteko aukera eskaintzea da.

Aurreratu dutenez, zazpi erakusketa izango dira egun horietan Durangon, lau berbaldir, argazki liburuen aurkezpenez, argazki emanaldiez eta tailerrez gain. Jaialdiaren berritasunetako bat da Zalóa Fuertes Durangaldeko argazkilariak umeei zuzenduta gidatuko duen tailerra.

Laugarren urtez dihardu Kinua argazki elkarteak jaialdia antolatzen, eta aurreko edizioetan bezala, sorkuntza fotografiko garaikidearen zabalkundea egitea du helburu. Jaialdiari esker, argazkiek hartuko dute Durango, ekainean. Arte eta Historia Museon, dendetako

erakuslehoetan, merkatuan, Plateruenean eta kalean izango da zer ikusi: Rous Boisier, Bego Antón, Segun Lazkano, Goiuri Aldekoa-Otalora eta Helena Goñiren lanak izango dira, besteak beste, ikusgai.

Lehenengoz eskainiko dute umeentzako tailer bat Begiran: Zalóa Fuertesek gidatuko du

Erakusketez aparte, bestelako proposamenak ere badakartzu 2014ko Begira jaialdiak: ideia trukerako pentsatutako elkarriketak izango dira sortzaile gonbidatuen eta entzuleen artean. Esate baterako, Txelu Angoitia, Jesus Mari Arruabarrena eta Goiuri Aldekoa-Otalora Durangaldeko argazkilariak eta Jesus Micó argazkilariak parte hartuko dute Arte eta Historia Museoko saio horietan.

Argazkilaritzaren alde teorikotik praktikora salto egin gura dutenentzako tailerrak ere eskainiko ditu Begira Photo jaialdiak. Batetik, Jesus Micó argazkilariak ekainaren 14an eta 15ean eskainiko duen sorkuntza pertsonalari buruzko tailerra dago. Cadizen jaiotakoa da Micó, eta bere hirian medikuntzan lizentziatu eta gero hartu zuen argazkigintzako bidea, Bartzelonan Arte Ederrak ikasita. Bestalde, Zalóa Fuertes Durangaldeko argazkilariak gidatuko du ekainaren 21 eta 27ko tailerra. Umeentzako pentsaturiko ekintza izango da aipaturiko hori.

Jaialdiaren 19 egunen ostean, ekainaren 28an, Durangoko Plateruenean emango diote ekimenari amaiera. Oskar Alegriaren *Emak bakia* filma emango dute, 19:00etan, eta egileagaz solasaldia partekatzeo aukera ere eskainiko dute, ondoren, 21:00etan. Jaialdian parte hartzen dutenen artean Begira Lagun saria banatuko dute, eta DJ baten musikak lagunduta amaituko dute aurtengo edizioa.

> ANTZERKIA

Maiatzaren 16ra arteko epea, lanak Zubi-ra aurkezteko

Zubi antzerki sorkuntzako lehiaketaren bigarren deialdia zabaldu dute. Maiatzaren 16ra arteko epea izango dute sortzaileek euren antzerki lanak aurkezteko. 2012an egin zuten Zubi lehiaketaren lehenengo deialdia Euskal Herriko antzerkigintzako zortzi eragilek: Artedrama taldeak, Luhusoko Harri Xurik, Nafarroa Behereko Herri Antzokiak, eta Durango, Zornotza, Leioa eta Elorrioko aretoetako programatzaileek. Euskal antzerki ikuskizunak hedatzeko eta sustatzeko aukerak sorkuntza fase guztietan gehitzeko helburuz antolatzen dute lehiaketa, euskarazko antzerkiaren profesionalizazioari laguntzeko. Formartu txiki eta ertainetarako dago pentsatuta lehiaketa.

Lehiaketaren helburu nagusia euskarazko antzerki lan bat sortzea da. Horrela gertatu zen 2012ko deialdira aurkezturiko lanetatik epaimahaiak hautatu zuenagaz, Durangoko Azokan aurkeztu zutenetik taularik taula eskaintzen diharduten *Konpota* lanagaz. Informazio gehiago, www.zu-bi.com helbidean.

> MUSIKA

Durangoko eta Irungo emakume ahots talde biren emanaldia 22an

Durangoko Laminotsa ahots taldea, eta horrek gonbidatu duen Irungo Nayade abesbatza jardungo dira, martxoaren 22an, Durangoko Tabira elizan, 20:00etan hasiko den emanaldian. Emanaldiak trukean du oinarria, eta ekainean Durangoak joango dira Bidasoaldean saioa eskaintzera.

Ion Ugarriza durangarra da Laminotsa taldeko zuzendaria: 11 emakume ahots biltzen ditu taldeak

Laminotsa ahots taldea 2012. urtean sortu zuten aurretik beste izen batez jardun ziren kantariak. Ion Ugarriza da zuzendaria, eta 11 emakume ahots osatzen dute taldea. Folk estiloko kantak eskainiko dituzte Tabiran. 16 kantari biltzen dira, ostera, Nayade abesbatzean, emakumezkoak, eta Fernando Boto da zuzendaria.

> LITERATURA

‘Odolaren deia’ nobela beltza kaleratu du Iñaki Irasizabal idazleak

Donostian aurkeztu zuten Iñaki Irasizabalen bederatzigarren nobela hau

> I.E.

Bederatzigarren nobela kaleratu du Zornotzan bizi den Iñaki Irasizabal (Durango, 1969) idazleak, Elkar argitaletxeagaz. Donostian egin zuen joan zen astean liburuaren aurkezpena.

Irasizabalen aurreko nobeletan bezala, delituak, hilketak zein azpijokoak presentzia handia daukate *Odolaren deia* liburuan. Aurkezpenean azpimarratu zuten, “egilearen begirada eta kontraera bereziari esker,

ilunabarrean etxeko teilatuan zigarroak erre eta garagardoa edatea bezain eguneroko eta naturalak izan daitezke xantaia eta ustelkeria”.

Bere aurreko nobeletan bezala, delituak, hilketak zein azpijokoak presentzia handia daukate liburuan

Gaztetatik elkarren berri izan ez duten anaia bi dira eleberriko protagonistak. Denbora luzez elkarren berri jakin barik egon dira, eta aitaren heriotzak elkartu ditu berriro. Liburuaren sinopsian protagonistei buruz azaltzen denez, “gazteenak aseturietako zerbitzari gisa bizi-modua nola-hala ateratzen du”, eta zaharrena, aldiz, “guraso zintzo eta negozio-gizon serioa da. Enpresariak zerbitzariaren laguntza beharko du ordea”.



Elkar argitaletxearen eskutik plazaratu du Irasizabalek ‘Odolaren deia’.



GREMIOEN GIDA

 **DEKORAZIOA**

Jaio barnizatuak

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrealdean eta era askotariko altzarien lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarriak.
- Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garain A - Berriz.
Tel.: 946 824 143 - 658 758 421
Faxa: 946 824 895 - info@jaiobarnizatuak.com

 **ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENA**

ARGIZTATZE TEKNIKAK
MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com

 **ITURGINTZA**

Solaguren kalea, 3 - ABADIÑO
Tel.: 946 814 474
Faxa: 946 215 374
urtiaga.sil@terra.es

urtiaga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

 **GARBIKETA**

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfonbrak

Goleta, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15

 **LOREZAINZA**

Jardines Patxi Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 lurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

K21

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net



Profesional onenak zure zerbitzura!



Behargintzak eskainitako aholkularitzari esker 65 enpresa sortu dira 2013an, Durangaldean

Durangaldeko Amankomunazgoak bultzatzen duen zerbitzuak 197 pertsona aholkatu zituen iaz; gehienak gazteak dira, 25 eta 45 urte bitartekoak, Lanbide Heziketa edo unibertsitateko ikasketak dituzte eginda, eta teknologia berrietan trebatuta daude

► JONE GUENETXEA

Krisi sasoian gauden honetan, lana bilatzeko aukeretakotako bat norberak bere enpresa martxan jartzea da. Hala ere, enpresa zabaldu aurretik, burokrazia bide luze bat dago egiteko. Bide horretan aholkularitza eta laguntza eskaintzen du Durangaldeko Merinaldearen Amankomunazgoko Behargintza garapen agentziak. Enpresa sortzaileei hain korapilatsu egiten zaizkien alorretan formazioa eskaintzen die: enpresa berriaren finantzaketa, eraketarako izapide legalak, forma juridikoa, enpresak sortzeko diru-laguntzak eta enpresa kudeatzeko formazioa, esaterako.

2013. urtean enpresa sortzeko helburuagaz 197 pertsona aholkatu zituen. Behin informazioa guztia eskuratuta, 65 enpresa berri jarri zituzten martxan. Guztira, enpresa horietan 97 pertsonak dihardute lanean.

Aurreko urteagaz alderatuta, ekintzaile kopuruak gora egin du eskualdean. 2012an 164 pertsona aholkatu zituzten Behargintzako zerbitzuaren bidez, eta 61 enpresa sortu zituzten.

Enpresa sortzaile gehienak gazteak dira, 25 eta 45 urte artekoak. Lanbide Heziketa ikasketak dituzte edo lizentziatuak dira. Amankomunazgoko arduradunek azaldu dutenez, teknologia berrietan trebatuak daude.

Aholkularitza eskatu duten ekintzaileen jatorriari dagokionez, Durangok izan zituen ekintzaile gehien iaz, 66 pertsona; Behargintzara gerturatutako

Durangok izan zituen ekintzaile gehien iaz, 66 pertsona; Behargintzara gerturatutako pertsonen %34, hain zuzen

Ekintzaile gehienek banakako enpresak sortu zituzten. 43 pertsonek jo zuten eredu horretara

pertsonen %34, hain zuzen. Abadiño izan zen bigarren, 25 ekintzaileekin, eta, ondoren, Iurreta 14ekin. Elorrio (9), Atxondo (3) eta Mañaritik (2) ez ezik, Amankomunazgotik kanpoko herrietatik ere eskatu zuten iaz informazioa (Zornotza, Berriz, Bilbo, Dima, Lekeitio, Galdakao eta Basauri).

Behargintzara hurreratu ziren pertsona gehienak, %70, langabezian zeuden (76 gizon eta 61 emakume). Gainerakoa, hau da, %30 (32 gizon eta 28 emakume) lanean zegoen, eta banakako

enpresa bat sortzeko informazioa bila gerturatu ziren.

Enpresa motak

Ekintzaile gehienek banakako enpresak sortu zituzten iaz. Guztira, 43 pertsonak eredu juridiko honetara jo zuten (%66). Bigarren, sozietate mugatuaren arloan, 6 enpresa sortu zituzten. Ondasun erkidegoak 13 izan ziren, kooperatibak bi, eta lan sozietate mugatua bakarra.

Sektoreari dagokionez, 65 enpresatik 21 zerbitzu enpresak izan ziren, 16 merkataritzakoak, 14 ostalaritzakoak, 14 pertsonen zerbitzuak eskaintzekoak, eta 2 industria arlokoak.

Behargintza ekintzaileekin

Amankomunazgoa 2002an enpresak sortzeko aholkularitza zerbitzua eskaintzen hasi zenetik, 1.400 sustatzaile baino gehiago hurbildu da Behargintzara, 1.200 proiektuekin, informazio eske. Urte hauetan 400 enpresa

Oskar Zarrabeitia: "Ekintzaileek egiten duten apustua da gu gehien animatzen gaituena"

sortu dira Durangaldean, askotariko sektoreetan; adibidez,

ostalaritza, merkataritza, eta enpresei zein pertsonen zuzendutako enpresak.

Amankomunazgoko arduradunek 2013. urtean enpresa sorkuntzan jasotako datuak positiboak direla diote. Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentek dioenez, "urtero lortutako emaitzak hobetzen goaz. Eskaintzen dugun aholkularitza eta formazioa eraginkorra da, baina ekintzaileek egiten duten apustua da gu gehien ani-

matzen gaituena, Durangaldean badagoela zer eginik esateko!".

Ikastaroak

Behargintzak bi ekintza hezigarri jarri zituen martxan 2013an. Alde batetik, langile autonomoek zein enpresa txiki eta ertainek duten pisua murrizteko mintegia eskaini zuten. Bestetik, jardunaldi batean salmentak igotzeko gomendioak eskaini zituzten, beti ere enpresa egoera onean aurkituz gero.

2013ko DATUAK

Profila
25-45 urte
%70 langabezian (76 gizon eta 61 emakume)
%30 lanean, banakako enpresa bat sortu guran

Jatorria
Durango: 66
Abadiño: 25
Iurreta: 14
Elorrio: 9
Atxondo: 3
Mañaria: 2

65 enpresa berri sortu 197 pertsona aholkatu

Besteak: Zornotza, Berriz, Bilbo, Dima, Lekeitio, Galdakao eta Basauri

Enpresa mota

Banakako enpresak: 43
Sozietate mugatua: 6
Ondasun erkidegoa: 13
Kooperatiba: 2
Lan sozietate mugatua: 1

Sektorea

Ostalaritza, merkataritza, enpresei eta pertsonen zerbitzuak eskaintzekoa



Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa

Mancomunidad de la Merindad de Durango

Norberarentzat lan egiteak ematen duen poztasuna

Norberaren kabuz enpresa bat martxan jartzeak ematen duen beldurra alde batera utzi, eta ekintzaile hauek beraien enpresak jarri dituzte martxan. Bakoitzak bere esparruan, ahalik eta profesionaltasun handiena eskaintzea dute helburu.



Olabuh!
Saioa Segura
Nohemí Arrocha

“Esperientzia berri bat eskaini gura dugu”

Kalebarrian (Durango) dagoen Olabuh! denda produktu originalak saltzen dituzte. Saioa eta Nohemirentzat jendeak beraien denda bisitatzera eta esperientzia berri bat izan duten sentazioagaz irtetea oso betegarria da. “Gurearen moduko denda batean gastuak orekatzeko, eta urteko sasoi bakoitzerako atalak kudeatzen jakin behar izaten da”. Ekintzetarako opariekin buru-belarri dihardute orain.



Talleres Unai
Unai Pascual

“Zailena lana eta familia uztartzea izan da”

Unai Pascualek baserriko eta lorategiko makineria konpontzeko tailerra sortu zuen 2013ko irailean. Enpresak garapen ona izan du, eta lantaldea handitu izana da horren erakusle. Oztopo handiena, autonomo izanda, lana eta familia uztartzeko zailtasuna izan dela aitortu du Pascualek. “Autonomoa zarenean %100 eman behar duzu, eta ordu asko pasatzen dituzu etxetik kanpo.



Uralde
Begoña Zubimendi

“Harrera ona izan du herritarren artean”

Begoña Zubimendik hartz klinika zabaldu berri du Iurretan. Herrian martxan dagoen bakarra da, gainera. Herritarren aldetik harrera ona izan duela azaldu du. Hala ere, hasierako tramite guztiak zailak izan direla gogora ekarri du. Behargintzako talde osoari eskerrak eman dizkio eskaintako laguntzarengatik. Laguntza ekonomiko gehiago izatea garrantzitsutzat jotzen du Zubimendik.



Beretek
Sandra López

“Gizarteak besteentzat jarduteko prestatzen du”

Arkitektura teknikoko estudioa jarri du martxan Sandra Lopezek. Autonomo egitearen zailtasunak ezagutu ditu. Gizarteak besteentzat jarduteko prestatzen zaituela dio Beretek estudioaren sortzaileak, baina gaur egun modu horretan zaila dela lana aurkitzea. “Bidali nituen curriculumak paperontzira joan ziren zuzenean”. Norberaren kabuz ekiterakoan Behargintzaren aldetik laguntza handia jaso duela nabarmendu du.



Sticky Sould
Javier Martin
Imanol Revuelta

“Nazioartean ere saltzen dugu, AEBn esaterako”

Enpresa bitxia zabaldu dute Javier Martinek eta Imanol Revueltek: Gitarren pertsonalizazioa lantzen dute. Abiatu duten jardueran, orokorrean, mundu guztiak gustuko duela diote: AEB, India, Tailandia eta Europara heldu dira. Hazten joateko asmoa dute, gainera. Azaldu dutenez, “oro har, jendeak gurago du besteentzat lan egin, eta 8 orduak pasatzean lanarekin ahaztu. Beraz, adorea!”.



Zu Zeu
Ziorza Jaio

“Gizonentzako arropa saltzea gurako genuke”

Neurri handiko arropak saltzen dituzte Zu Zeu denda. Neskentzako arropak saltzen dituzten arren, gizonentzako arropa saltzekoan dira. Gaur egun bizi dugun egoeraren arren, denda egunero zabaltzea lorpen handia dela dio Jaiok. Enpresa bat martxan jartzean Behargintzak ematen duen laguntza beste alor batzuetan eskaintzea botatzen du faltan: laguntza ekonomikoak, udalaren laguntza...



Uribarri asesores
Gema Vidal
Joseba Arkarazo
Amaia Barrenetxea
Inés Amézaga

“Behargintzaren lana oso erabilgarria da”

Aholkularitza fiskala, kontablea eta laborala eskaintzen dute Uribarrin. Enpresaren lehen tasuna bezeroa mimatzea da: “Bera bere negozioaz arduratzea gura dugu, horren kudeaketaren konfiantza osoa guri utzita. Ekintzaileei zuzendutako babes ekonomikoak ez dela nahikoa uste dute bai diru-laguntzen, bai bankuen aldetik. Era berean, Behargintzan azaldutakoa oso erabilgarri egin zaiela diote.



Disei Media
Begoña Goitia

“Hasiera espero baino hobea izan da”

Disei Media komunikaziora eta publizitatera bideratua dago: diseinu grafikoa, argazkigintza, bideoa eta Internet. Hasiera espero baino hobea izan dela azaldu du Begoña Goitia proiektuaren sustatzaileetako batek. “Hainbat proiektu ditugu martxan”. Behargintzaren lana oso profesionala eta positiboa izan den arren, burokraziaren bidea ez dela erraza izan dio Goitiak.



Gorroño Hartz Klinika
Naia Gorroño

“Gertuko tratua eta berrikuntzak dira giltza”

Naia Gorroñok hartz klinika zabaldu zuen joan zen irailean. Gertuko tratua eta odontologia arloko azken berrikuntzak eskaintzea arrakastaren giltzak direla dio Gorroñok. “Harro sentiarazten nau, eta egindako ahaleginak merezi izan duela esan gura du horrek”. Sei hilabeteko epearen ondoren, proiektu ugari ditu esku artean, beraz, hazten joateko asmoa du.

Kirola

Mikel Garitaonandia | Durango, 29 urte. Zornotza STko entrenatzailea |

“Zornotzan jendea saskibaloira kateatzea zen garrantzitsuena”

Garitaonandiak zilarrezko mailari eutsi dio Zornotzagaz; saskibaloizale amorratua da



Mikel Garitaonandia durangarra da Zornotza Saskibaloizale Taldeko entrenatzailea.

> MARKEL ONAINDIA

Zornotza Saskibaloizale Taldeak Zilarrezko Adecco mailan debutatu du aurten. Liga amaitzeko bost jardunaldiren faltan mailari eustea lortu dute, eta orain playoffetan sartzeko ahalgina egingo dute. Mikel Garitaonandia entrenatzaile gaztea da arrakastaren erantzuleetako bat.

Zorionak Mikel, lortu duzue denboraldirako helburua.

Eskerrik asko. Udan zalantza asko geneuzkan, guztiz berriak izan garelako maila honetan, pasa den urtean igo berri. Taldea eraikitzerakoan lehenengo helburua hori zen, maila mantentzea. Gainera, ekonomikoki nahiko justu ibili gara urte osoan. Denboraldia hasita, taldea maila honetarako lehia-korra zela ikusi genuen. Gero, lesioekin arazo piloak eduki dugu; inoiz ez dut ikusi hainbeste lesio. Ezin izan dugu behar bezala entrenatu, partidu askotara sei-zazpi jokalarigaz joan gara... Baina apurka-apurka ohitu egin gara, eta lortu dugu taldea sendo agertzea, batez ere etxean.

Partidu gogorra izan zen domekakoa, ezta?

Guretzako partidu guztiak izan dira oso gogorrak. Zure helburua atzetik irtetea denean, argi dago ez zarela gai edonori erraz

“

Bizkaian ondo egiten ari da harrobiko lana, eta jokalaria sano interesgarriak irteten dabilta”

irabazteko. Bi zati izan zituen domekakoa. Lehenengoan puntu asko jaso genituen, baina bigarrenengoan erasoan errazago jokatu genuen, eta defentsarako konfiantza eman zigun horrek. Oso partidu garrantzitsua zen salbazioa lortzeko. Zapatuan Askatuak taldeak irabazi egin zuten, eta domekan galtzeak presioa eta urduritasuna ekarriko zukeen. Liga amaieran dauzkagun partiduak oso zailak dira.

Zaleen babesa eskertu duzue. Helburua maila mantentzea zen. Baina, bestalde, Zornotzan jendea saskibaloira kateatzea zen garrantzitsuena. Ez genuen espero, inola ere, lehenengo domekatik atzenengora kantxa betetzerik. Donostiarako autobus bi bete genituen, jendea autoetan etortzen da bidaietara... Jen-

deak kalean gelditu egiten zaitu, galdetu egiten dizu, eta badauki noren kontra jokatzeko duzun. Gure garaipenik handiena afizioa kateatuta edukitzea da.

Aurtengo fitxaketa bat Kyle Rowley izan da. Sare sozialetan esan du asko ikasi duela.

Sekulako zorrea izan genuen beragaz. Izan ere, pivot bat lesionatu zitzaigun. Oviedok fitxatu zuen Urrezko mailan, baina kontratua eten zuten. Ez da jokalaria ikusgarria, baina 2,13 metro ditu. Gure mailan oso handia da. Taldekideekin sekulako harremana du, eta hori lortzea gaitza izaten da atzerritarrek ekarzerakoan. Egunero lehena da etortzen, lan egiten du, gimnasiora joaten da, beti dago prest eta irribarre batez aurpegian. Bere lehenengo esperientzia da AEBetatik kanpo. Berez Trinidad eta Tobagokoa da.

Zornotzan lau urte, eta lehenengo Tabirakoan ibili zinen. Gaztea izan arren, ibilbidea egin duzu. Gaztetatik hasi nintzen entrenatzen. Jolasten nuenean ere umeak entrenatzeko ilusioa neukan. Lesio bat izan nuen, eta ez neukan sufritzeko gogo hori, baina bai entrenatzekoa. Durango, lehenengo seniorrak, gero umeak berriro, eta, ostean, Zornotzara etorri nintzen. Urte bi egon nintzen Unai Zamalloaren

bigarren entrenatzaile lez, eta Unai iaz uztean zuzendaritzak nigan konfiantza eduki zuen.

Zale amorratua zara, beraz. Larregizkoa. Etxera heltzean beti beste partidu bat ikusten hasten naiz. Nire taldean pentsatzen ez nagoenean, saskibaloia ikusteak erlaxatu egiten nau. Askok ikasten dut edozein saskibaloizale mota ikusten dudanean.

Hurrengo denboraldiari begira, nolako egoera ikusten duzu? Ekonomikoki liga hau oso garestia da, eta lotsagarria da. Federazioak finkatzen dituen prezioek ez daukate zentzurik. Guk gaur egun daukagun laguntzarik handiena Zornotzako Udalarena da, guztiz inplikatu da. Klubak nahiko argi dauka datorren urtean Zilarrezko mailan jokatu duena berriro. Horregatik, nahiko lasai gaude.

Bizkaiko bigarren taldea zarete momentu honetan. Bizkaian ondo egiten ari da harrobiko lana, eta jokalaria sano interesgarriak irteten dabilta. Fisikoki ere aldaketa egon da; handiak eta koordinatuak irteten dira. Nabarmentzen ari diren gazteek eliteria heltzeko eskailera bat edukitzea garrantzitsua da. Guztiak ez dira gai ACBn jokatzeko, baina aurreko eskaileran egoteko akaso bai.

AGENDA

> FUTBOLA

BIGARREN B MAILA

Amorebieta - Getafe B
· Zapatuan, 17:00etan, Urritxe futbol zelaian.

OHOREZKO MAILA

Elorrio - Santurtzi
· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

MAILA GORENA

Zaldia - Abadiño
· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.

LEHENENGO ERREGIONALA

Berriz - Fruiz
· Domekan, 11:30ean, Berrizburun.

BIGARREN ERREGIONALA

Ezkurdi - Zorrotzako
· Domekan, 17:00etan, Arripausuetan.

Iurretako B - Bakio
· Zapatuan, 18:00etan, Larrakozelaian.

> ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Elorrioko Buskantza - Egintza
· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian.

MAILA GORENA

Sapuberri - Berrio Santutxu
· Zapatuan, 19:00etan, Landakon.

LEHENENGO ERREGIONALA

Abadiñoako Gaztetxe - Pozgarri
· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako kiroldegian.

Elorrioko Buskantza - Dantzari
· Domekan, 12:15ean, Elorrioko udal kiroldegian.

BIGARREN ERREGIONALA

Mendibeltz - Egartsuak
· Zapatuan, 17:30ean, Landakon.

Mallabia B - Presion Break B
· Domekan, 17:00etan, Zaldibarko kiroldegian.

Elorriko Txiki - Saltzaileak B
· Zapatuan, 15:05ean, Elorrioko kiroldegian.

> SASKIBALOA

LEHENENGO MAILA

Tabirako Baqué - Atlético San Sebastian
· Zapatuan, 19:30ean, Landakon.

LEHEN ERREGIONAL BEREZIA

Tabirako Baqué - Unamuno
· Zapatuan, 18:45ean, merkatu plazan.

Zornotza - Univ. Deusto-Loiola
· Domekan, 18:00etan, Izerbeakoan.

BIGARREN ERREGIONALA

Julza-Zaldia - Tabirako Baqué
· Zapatuan, 17:30ean, Zaldibarren.

> PILOTA

SAN PRUDENTZIO TXAPELKETA

- Zubikarai - Maiz
- Arrizabalaga - Arregi
- Zubiria - Jamar
- Peña - Etxebarria
· Domekan, 16:30ean, Matienan.

> TXIRRINDULARITZA

Gaztetasuna eta esperientzia uztartuta, nazioartera begira

Cafés Baqué-Conservas Campos taldea aurkeztu dute; nazioartean hainbat lasterketa lehiatuko ditu, tartean Lieja-Bastogne-Lieja klasikoa



Cafés Baqué-Conservas Camposen aurtengo taldea, Durangoko tren estazioan atzo egindako aurkezpenean.

> JOSEBA DERTEANO

Txirrindulari amateurrei profesioletara saltoa ematen laguntzea du helburu nagusi, atzo, Durangon aurkeztu zuten Cafés Baqué-Conservas Campos taldeak. Gaztetasuna eta esperientzia uztartu dituzte, denboraldi berriari aurre egiteko.

Hamasei txirrindularik osatzen dute taldea, iaz baino lau gehiagok. Horietako bost gaz-

teak dira, tartean Amorebieta Umprotik ekarri duten Oskar Malasetxebarria munitibarra. Esperientziadun ziklistak ere batu dira taldera: Carlos Antón Jiménez Caja Ruraletik, eta, Alvaro Trueba eta Oier Sánchez Naturgasetik. Taldean jarraitzen duenetako bat Paul Usabel atxondarra da. Iaz taldean zebiltzanetako bik, aldiz, profesioletan ariko dira: Mario Gonzalez

(Active Jet) eta Diego León Cuervo (Burgos DH).

Egutegiari dagokionez, nazioartean hainbat lasterketa lehiatuko dituzte, 23 urtez azpiko Lieja-Bastogne-Lieja klasikoa, esaterako. Lasterketa horretan profesionala ez den talde euskaldun batek parte hartuko duen lehen aldian izango da. Bidasoako eta Palentziako itzuliak ere helburuen artean dituzte.

> HERRI KIROLAK

Maiztegikoak lider direla doaz Kortezubira

Bizkaiko Foru Aldundiak herri kirol topaketak antolatzen ditu eskola kirolean dabilzan gazte txoei begira. Berriz izan zen lehenengo jardunaldia, eta Kortezubira izango da bigarrena, zapatuan, 10:30ean, udal probalekuan. Bertan, durangaldeko hainbat talde ariko dira benjaminetan: Maiztegi A eta B (Heki kirol klubaren barruan), Zaldirar eta Judo Durango. Lehen jardunaldiaren ostean, Maiztegi A da liderra 48 puntugaz. Txingua, ingude, lokotx biltze eta zaku eramatean irabazle izan ziren.

> FUTBOLA

Etorkizun campusa egingo dute Iurretan

Apirilaren 22tik 25era futbolarik lotutako etorkizun campusa garatuko du Gertasport kirol klubak, Iurretako Larrakoze-laian. Bertan 2002 eta 2008 urte artean jaiotako gaztetxoek parte hartu ahaliko dute. Helburua gaztetxoak futboleko trebatzea da, baina baita lankidetzeta eta errespetua sustatzea ere. Izen-ematea 90 euro da (kirol ekipamendua, aseguru...). Apirilaren 11ra arte: www.gertasport.com. Iaz egin zuten lez, Athleticen jokalarik bat ekartzeko lanean dabilta.

> JUDO

Judo jaialdiagaz gaixo daudenei lagunduko diete

Zapatuan, 10:00etan, Nazioarteko V. Villa de Durango gazte txoen judo torneo egingo dute Landako kiroldegian. 12 eta 17 urte arteko 450 judoka batuko dira. Gaztetxoek elkar ezagutzeta eta hainbat balio sustatzea, elkartzasuna, adibidez, dute helburu Durangoko judo taldeko antolatzaileek. Gainera, aurten, izen-ematean bidez jasotako diruaren zenbateko bat Stop San Filippo elkarteari emango diote. Izen bereko ezohiko gaixotasuna ezagutarazteko lan egiten du elkarte horrek.

> PILOTA

San Prudentzio eta San Trokaz txapelketak hasiko dituzte

Asteburu honetan San Prudentzio eta San Trokaz pilota txapelketak hasiko dituzte. Lehenengo Traña-Matienako pilotalekuan jokatu da lau t'erdia barruan, eta gazte zein nagusi mailetan. Jardunaldiak barikuetan, 20:00etatik aurrera, eta domeketan, 16:30etik aurrera, jokatu dituzte.

Nagusietan Igor Azpiri elorriarra eta Ander Elezkano izango dira multzo buruak. Beste hiru pilotari abadiñar ere ariko dira: Asier Aspuru, Aitor Arabiourrutia eta Egoitz Amantegi. Gazteetan multzo buru izango diren artean, Durangaldeko pilotari bat dago: Aitor Elordi mallabitarra. Gorka Otaduy berriztarrak ere parte hartuko du maila horretan.

San Trokaz pilota txapelketa, berriz, Zelaletako pilotalekuan jokatu dute, kadete eta promesa mailetan. Partiduak barikuetan edo domeketan izango dira. Txapelketa bateko zein besteko finalak Traña-Matienako eta Zelaletako jaietan jokatu dituzte. Abadiñoko pilota eskola eta Lanoste txokoa dira txapelketa bietako antolatzaileak.

> PILOTA

Otaduy eta Elordi Euskal Herriko txapelkun

Gorka Otaduy berriztarrak eta Aitor Elordi mallabitarrak gazte mailako Euskal Herriko Pilota Txapelketako finala irabazi zuten zapatuan, Azkoitian. Biek Iurretako Olaburu pilota eskolagaz jokatu dute. Nahikoa erraz nagusitu zitzaizkien Bortzirriak taldeko Mitxelena eta Martinezi: 22-11.

Bestalde, Bizkaiko Trinkete Txapelketako finalak ere jokatu zituzten joan zen asteburuan, Tornosolon, eta nagusietan Ander Antxia eta Rober Uriarte abadiñarrek irabazi zuten.

ADITUAREN TXOKOA



Unai Zamalloa

Saskibaloia

Zornotza berriro Zilarrezko LEB mailan

Berri pozgarriak azken egunetan jasotakoak. Alde batetik, 'Anboto' Zornotzan ere izango dela, eta aurreko igandean matematikoki lotuta, hurrengo denboraldian ere Zornotza ST Zilarrezko LEB mailan izango dela. Zorionak!

Urte zaila eta gogorra Mikel Garitak, Fernan Azkunen laguntzarekin, lantzen duen taldearentzat. Hasieratik, lesioak izan dira topera aritzeko taldearen indarra moztu dutenak. Unai Calbarroren lesioa izan bada latzena, urteko hainbat momentutan jokalarik asko izan dira lesionatuta eta jokatu ezinik. Guzti horrek, mailaz igo berri den urtean, zailtasunak handitu egiten ditu.

Hala eta guztiz ere, taldea ez da inoiz makurtu, eta lan benetan ona egin du. Guztiak egon izan balira, playoffetan zein postutan aritzekotan izango ziren? Ez dakit. Dakidan gauza bakarra, izandako zailtasun guztiekin eta bost partidu jokatzeko direlarik, datorren denboraldian berriro maila gogor honetan arituko direla ziurtatuta dagoela da. Zorionak!

Zornotza ST kluba sendo handitzen ari da, eta egiten den lan ona eta handia ere goraiatu nahiko nuke lerro hauetan. Azkeneko urteetan oinarritik egiten ari den lanaren fruituak hasi dira nabaritzen, eta laster izango dira gehiago.

Aupa Zornotza!

hitz liburudenda

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

HELDUENTZAT
AZKEN AFARIA
Xabier Montoia

UME ETA GAZTEENTZAT
HARTZA EHIZATZERA GOAZ
M. Rosen eta H. Oxenbury

MUSIKA
BIG AFFAIR
Audience

HEKi
HERRI KIROL KLUBA

- 656 782 552 -
heki.iurreta@gmail.com

Larunbatean, martxoak 15, 10:30ean,
Kortezubiko udal probalekuan
herri kirol topaketa, benjaminetan

BODEGUILLA

TRAÑA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Martxoaren 14an, 22:30ean, Berrizko Hiltege gaztetxean

Tres41 + Tooth

Post hardcorea egiten duen Tooth hirukoteagaz ariko da, Tres41 gaur, Berrizko gaztetxean. Gitarrak, baxuak eta bateriak osatzen dute Tooth. Bi urtean prestatzen jardun den diskoa, etxean, gaztetxean aurkeztuko du Berrizko Tres41 taldeak. 'Desde el país de los sordos' izena du berriztarren disko berriak, eta datozen asteetan hainbat herritan aurkeztuko dute.

Christian Martin

Antzerkia

:: BERRIZ

Martxoaren 15ean, 20:00etan, **'La última oportunidad'**, Kultur Etxean.

:: DURANGO

Martxoaren 16an, 18:00etan, **Erpurutxo**, San Agustín kulturgunean.

:: ELORRIO

Martxoaren 15ean, 19:30ean, **Juana la Loca**, Arriolan.

:: IURRETA

Martxoaren 14an, 19:00etan, **'La bodeguilla'**, Ibarretxe kultur etxean.

:: ZORNOTZA

Martxoaren 15ean, 18:00etan, **Erpurutxo**, Zornotza Aretoan.

Erakusketa

:: BERRIZ

Martxoaren 28ra arte, **'Berrizko emakumeen argazki zaharrak'**, Kultur Etxean.

:: DURANGO

Martxoaren 30era arte, **Jesus Lizasoren 'Ortotropiak'**, eskulturak, Arte eta Historia Museoa.

:: ZORNOTZA

Apirilaren 7ra arte, **Maite Piñeroren 'Poéticas aéreas'**, Zelaieta zentroan.

Musika

:: BERRIZ

Martxoaren 14an, 22:30ean, **Tres41 + Tooth**, gaztetxean.

:: DURANGO

Martxoaren 15ean, 22:00etan, **Gari + Jabier Muguruza**, Plateruenean.

Martxoaren 20an, 20:00etan, **Kantulagun**, Plateruenean.

Kontalaria

:: IURRETA

Martxoaren 21ean, 17:30ean (3-4 urtekoak) eta 18:00etan (5 urtetik gorakoak), **Miren Larrea eta Eider Eibar 'Zaku bete kontu'**, Herri Bibliotekan.

:: ZALDIBAR

Martxoaren 21ean, 17:30ean, **Eider Eibar eta Miren Larrea, 'Zaku bete lelokeri'**, Udal Liburutegian.

:: ZORNOTZA

Martxoaren 21ean, 18:00etan, **ipuin kontalaria**, Zornotza Aretoan.

Berbaldia

:: DURANGO

Martxoaren 27an, 19:00etan, **Miren Jaioren, 'Eszenatokia -zatozte nirekin, arren-aldatua zen'**, Arte eta Historia Museoa.

:: ELORRIO

Martxoaren 19an, 18:30ean, **'Emakumezkoen alarguntasuna' azterketaren aurkezpena**, Iturrin.

:: ZORNOTZA

Martxoaren 18an, 18:30ean, **'Aprendiendo a comer'**, gurasoentzako berbaldia, Zelaietan.

Bertsokak

:: BERRIZ

Martxoak 14, 20:30ean, **'Ez da kasualitatea' bertso saio musikatua**, Kultur Etxean.

:: DURANGO

Martxoak 14, 21:00etan, **'Euskaraz bizi' bertso afaria: Igor Elortza, Amets Arzallus, Peru Magdalena, eta Beñat Ugartetxea**, Plateruenean.

Martxoak 19an, 12:00etan, **Bizkaiko Bertsolari Gazteen XII. BBK Sariketa**, Institutuan.

Irteera

:: ZALDIBAR

Martxoaren 25ean, **Egun pasa Vianara (Helmuga emakume elkarteak)**. Izen-ematea: 688 613 410.

Zinema

:: BERRIZ

Martxoaren 21ean, 22:00etan, **El lobo de Wall Street**, Kultur Etxean.



:: DURANGO | ZUGAZA

8 apellidos vascos

Zuzendaria: E. Martínez-Lázaro

- barikua 14: 19:30/22:00
- zapatua 15: 19:30/22:30
- domeka 16: 18:30/20:30
- astelehena 17: 18:30/21:00
- martitzena 18: 20:00

2. ARETOA Una vida en tres días

Zuzendaria: Jason Reitman

- barikua 14: 19:30/22:00
- zapatua 15: 19:30/22:30
- domeka 16: 18:00/20:30
- astelehena 17: 18:30/21:00
- martitzena 18: 20:00

Approved for adoption

Zuzendaria: Laurent Boileau

- eguaztena 19: 20:30

:: ELORRIO | ARRIOLA

12 años de esclavitud

Zuzendaria: Steve McQueen

- zapatua 15: 22:30
- domeka 16: 20:00
- astelehena 17: 20:00

Bram Barrabas

Zuzendaria: Tamara Bos

- domeka 16: 17:00

:: ZORNOTZA

Ocho apellidos vascos

Zuzendaria: E. Martínez-Lázaro

- barikua 14: 20:15
- zapatua 15: 19:30/22:30
- domeka 16: 20:00
- astelehena 17: 20:15

Ernest & Celestine

Zuzendaria: Benjamin Renner

- domeka 16: 17:00

Pelo malo

Zuzendaria: Mariana Rondón

- martitzena 18: 20:00

Martxoaren 15ean, 20:00etan, Berrizen

'La última oportunidad'

Gurutze Beitia eta Julian Iantzik dihardute 'La última oportunidad' antzezlanean taula gainetik. Galder Perezen zuzendaritza daukan GluGlu Producciones taldearen obra da. Itzarongela batean elkar ezagutuko duen bikotea da antzerki obrako protagonista: intseminazio artifizialaren bidez ama izan nahi du emakumeak, eta esperma-emalea da gizonetako. Komedia da nagusi antzezlanean. Umoretik kontatzen ditu harremanetako gorabeherak eta gaizki-ulertuak.



> DENBORAPASAK

▶ Sudokua

1

9	5			3				6
4	7						2	1
	8		7	2	5			
3						1	9	
			6	8	1			4
2						7		5
				1	6			4
		7	5			9	8	3
5	4				8			

> ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
eguztenezko 14:00ak arteko epea



> **Maialen Ortiz de Apodakak** zortzi urte egingo ditu domekan. Zorionak! Musu handi bat etxekoan partez!



> Eguztenezko lau urte egin dituzte **Ametzek** eta **Sugarrek**. Zorionak familia guztixen partez. Mosu potolo bana bixoi!



> Astelehenean **Arantzaren** eta **Martinen** urteguna izango da. Zorionak etxekoan partez, eta ospatu egizue merezi duzuen bezala.



> Martxoaren 9an jaio zan **Unax Sarasua Dominguez**. Ongi etorri! Zorionak amari eta aitari garaikoen partez! Ta zorionak be aitite-amamai titulu berriagatik!



> **Jon Arrese Echezarretak**, gure etxeko bertsolariak bi urte bete ditu martxoaren 18an. Zorionak mutikote etxeko guztien partez.



> Zorionak **Maidere!** Eta eskerrik asko gure artera halako hiru edertasun ekartearen. Besarkada estu bat etxekoan partez.

Jose Antonio Agirre, 4
946 200 869
Avda. Montevideo, 1
946 204 383



> Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta bat zotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.



> **Oierrek** martitzenean zazpi urte egin zituen. **Saioak** gaur egingo ditu 33. Zorionak bioi!



> 11 amets zaldi gainean, **okundua mankata** 12.ean. Musu asko etxekoan partez. Zorionak **Nahia**.



> **Bizidun nagusien elkarte**a ibilbideak egiten hasi da, Durangaldeko txokoak eta euren historia ezagutzeko. GR Mikeldi ibilbidea etapaka egiten dabilta orain. Barikuro geratzen dira elkarrekin ibilaldiak egiteko.

> BOTIKAK

- BARIKUA, 14** - 09:00-09:00
- **Irigoien** (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
 - **Melero, Rosa Mari** (San Pedro 31 - Amorebieta-Etxano) 09:00-22:00
 - **Egaña** (Bekoetxe 4 - Zaldibar)
- ZAPATUA, 15** - 09:00-09:00
- **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango)
 - **Melero, Rosa Mari** (San Pedro 31 - Amorebieta-Etxano) 09:00-13:30
 - **Mugica** (Andra Maria 9 - Durango)
 - **Navarro** (Artekalea 6 - Durango)
 - **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
 - **Unamunzaga** (Muruetatorre 2C - Durango)
 - **Sagastizabal** (Askatasun etorb. 19 - Durango)
 - **De Diego** (Intxaurren 22 - Durango)
 - **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)
 - **Irigoien** (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
 - **Jaio-Olabarrieta** (Errekakale 6 - Elorrio)
 - **Urizar** (Gabiola 2 - Berriz)
- DOMEKA, 16** - 09:00-09:00
- **Mugica** (Andra Maria 9 - Durango)
 - **Melero, Rosa Mari** (San Pedro 31 - Amorebieta-Etxano)
- ASTELEHENA, 17** - 09:00-09:00
- **Unamunzaga** (Muruetatorre 2C - Durango)
 - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Amorebieta-Etxano) 09:00-22:00
 - **Bengoia** (Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)
- MARTITZENA, 18** - 09:00-09:00
- **De Diego** (Intxaurren 22 - Durango)
 - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Amorebieta-Etxano)
- EGUAZTENA, 19** - 09:00-09:00
- **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
 - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Amorebieta-Etxano) 09:00-22:00
 - **Jaio-Olabarrieta** (Errekakale 6 - Elorrio)
- EGUENA, 20** - 09:00-09:00
- **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)
 - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Amorebieta-Etxano)

> TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS Deiak 112
Gurutze Gorria **94 681 09 49**
Osakidetza **94 600 72 00**
Ertzaintza **94 466 93 00**

> GARRAIOAK

- Euskotren **902 54 32 10**
Bizkaibus **94 448 40 80**
Pesa **902 10 12 10**
Continental Auto **945 286 466**

> TAXIAK

- Abadiño **94 681 44 70**
Matiena **606 459 988**
Durango Geltokia **94 681 10 01**
Elorrio Geltokia **94 682 00 40**
J.L. Uriarte **670 402 002**
I. Estebez **670 678 273**
M. Galeano **670 409 330**
Iurreta **94 620 15 65**
Taxi auzunea **688 618 690**
Berrizko auzo taxia **620 022 800**

> UDALAK

- Abadiño **94 621 55 30**
Atxondo **94 682 10 09**
Berriz **94 682 45 84**
Durango **94603 00 00**
Elorrio **94 658 27 12**
Garai **94 681 63 93**
Iurreta **94 620 12 00**
Izurtza **94 681 35 48**
Mallabia **943 17 14 61**
Mañaria **94 681 89 98**
Otxandio **945 45 00 20**
Zaldibar **94 682 70 16**

> UDALZAINGOA

- Abadiño **94 621 55 33**
Berriz **94 682 40 36**
Durango **94 603 00 00**
Elorrio **94 682 02 18**
Iurreta **94 620 08 88**

> AZOKA-BASERRITIK-PLAZARA



Abadiño
(Traña-Matiena)
Eguaztenezko
10:00etatik aurrera
Durango
Zapatu goizetan
Zornotza
Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

- Letxuga.....**0,80 euro**
Letxuga haritz hostoa**1 euro**
Azelga**2 euro/kg**
Espinaka txorta**1,20 txorta**
Berakatz freskoa**1,50 txorta**
Ilarrak**6 euro/kg**
Tomate kontserba...**3,90 euro/potea**
Arratzak.....**3,80 euro/dz**
Idiazabal gazta.....**17 euro/kg**
Gari integraleko ogia**3,30 euro**

SUDOKUAREN SOLUZIOA

2	1	9	8	7	4	3	5	6
8	6	2	4	1	5	7	9	1
3	8	5	4	7	6	2	8	1
5	9	7	3	6	4	8	1	2
4	2	1	8	6	9	5	6	7
6	1	7	5	2	9	3	4	8
9	3	4	5	2	1	7	8	6
1	5	2	6	9	8	3	4	7
8	7	6	4	3	1	8	5	2

6° 13° ZAPATUA



6° 13° DOMEKA



5° 14° ASTELEHENA



5° 15° MARTITZENA



“Ez naiz etxean geldi geratzen den pertsona horietakoa”

Elorrioko liburutegian eta hirugarren adinekoentzako gimnastikan izena eman du 91 urterekin.

> MAIALEN ZUAZUBISKAR
Mari Carmen Zuazua 91 urterekin ezin da geldirik egon, eta Elorrioko liburutegian izena eman du, intereseko liburuak topatzeko asmoz. Gainera, irailetik ona hirugarren adinekoentzako gimnastikan ere badabil.

Zelan animatu zinen liburutegian izena ematera?

Betidanik gustatu izan zait irakurtzea, familiatik datorrik afizio hori, gure aitak ere oso gustuko zuen. Aspalditik nuen liburutegian izena emateko asmoa. Orain dela urte batzuk, liburutegiko arduradunari, Inazio Zubiari, galdetu nion ea izena emateko zenbat ordaindu, eta zer egin behar nuen. Baina azkenean, bata zela edo bestea zela, orain dela gutxira arte ez dut izenik eman. Gainera, liburutegian izena eman izanaren beste arrazoi bat izan da etxetik oso hurbil daukaldala.

Zelako liburuak irakurtzen dituzu?

Denetik irakurtzen dut, baina, batez ere, Euskal Herriko historia kontatzen duten liburuak irakurtzen ditut. Liburutegian hartu nuen lehenengo liburua *La Condesa de Agurain* izan zen. Izugarri gustatu zitzaidan. Liburuak aukeratzeko orduan, liburutegiko arduradunak asko laguntzen dit. Orain *Martina la guerrillera* ari naiz irakurtzen, eta Berrizko emakume baten istorioa kontatzen du.

Irakurteaz gainera, hirugarren adinekoentzako gimnastikan ere bazabiltza?

Bai, horretara ere joaten naiz.



Irailen hasi ginen, eta 80 urteik gorakoentzako da; bertan, sei gizon eta zazpi bat andre gaude. Hainbat gauza egiten ditugu, eta oso ondo pasatzen dugu ariketa horiek egiten. Gainera, ariketa egiteaz aparte, lagun artean egoteko eta berriketa apur bat egiteko oso aproposa da. Gure arteko harremana oso ona da, eta garrantzitsuena da eztabaidarik ez dugula izaten.

Zenbatero izaten duzue ikastaroa?

Astean bi aldiz edukitzen dugu; astelehenetan eta asteazkenetan, egun bakoitzean ordu bat eta erdi. Pena da astean bi aldiz bakarrik joan ahal izatea, oso gustura joaten naiz-eta. Niregatik izango balitz, egun gehiagotan joango nintzateke. Hala ere, egia da egun batzuetan leku bateko mina dela edo bestekoa dela, ez dudala izaten gogo handirik joateko, baina neure buruari ohetik altxatu behar dudala esaten diot, eta joan egiten naiz. Ikastaroa goizeko 10:30ean hasten da, eta, bertara joan behar dudanean, goizeko 6:30ean esnatzeko ohitura hartu dut; ohea egin, errezatu eta nire gauzak lasai egiteko.

Nolako ariketak egiten dituzue?

Gimnastika lasaia egiten dugu; normalean ordu erdi egoten gara gorputzarekin ariketak egiten, eta, gero, beste ordubetean memoria lantzeko ariketak egiten ditugu. Gorputzeko ariketak egin ondoren, irakasleak galdera batzuk banatzen dizkigu, eta guk horiei idatziz

erantzun behar izaten diegu. Baina gimnastikarena ez da oraingo kontua bakarrik, orain dela urte batzuk, jubilatuen etxean gimnastika ikastaroak ematen zituzten, eta bertan ere aritu nintzen. Ordukoa, oraingoarekin alderatuta, gogorragoa zen, lurrian ariketa dezentegiten genituelako.

Nola jakin zenuen ikastaroaren berri?

Udaletxetik eskutitz bat bidali zidaten ikastaroaren berri emateko. Orduan telefonotik deitzea bururatu, eta, ikastaroa kultur etxean izango zela ikusita, izena ematea otu zitzaidan.

Geldirik ez dagoen emakumea zara, orduan.

Egia esan, ez naiz etxean geldi egoten den pertsona horietakoa. Etxean mugitu gabe geratu baino gurago izaten dut eguraldi ona dagoenean kalera irten, eguzkia hartu, herritik pasieran ibili, eta kafe bat hartu. Hala ere, orain ez naiz kalera lehen beste irteten, baina ahal dudanean gustatzen zait kalera joatea. Esaterako, astelehen eta asteazkenetan gimnastikatik itzulitakoan oso nekatuta egoten naiz, eta gurago izaten dut beste ezer egin baino ohera sartu eta bertan egon.

Afizio horiez gain, eskulanak egitea ere gustatzen zaizu.

Telebista ikusten denbora galdu baino, nahiago izaten dut eskulanak egiten edo liburuak irakurtzen denbora pasatu. Besterik ez bada, etxean dagoen tela zati txiki bat hartu, eta horri hau edo beste egiten diot. Betidanik izan dut josteko eta puntua egiteko grina hori; txikitatik egiten ditut horrelako gauzak.

LAUHORTZA

GOTZONE BARANDIKA

EHUko irakaslea



Dukan dieta

Pierre Dukan, dieta famatuaren “aita”, aurtengo urtarriean kanporatu dute Frantziako medikuen kolegiotik. Neurriak ez du izan ondorio praktikorik, 2012an jubilatuta zelako. Gainera, kanporatze espediente zabaldu ziotenean, berak egin zuen alde kolegiotik. Hala ere, kideek erabaki zuten espediente aurrera eroan behar zutela, Dukanen metodoei gaitzespen ofiziala erakusteko.

Dukanen dieta proteinen hiperkontsumoan dago oinarrituta, eta karbohidratoak ia guztiz baztertuta daude. Epe laburrean argaltzeko eraginkorra da dieta hau, organismoaren energia erreserbak erabiltzen direlako. Epe ertainean, nekea, karranpak eta idorreria sortzen dira maiz, eta epe luzean, giltzurrunak eta gibela kaltetuta gera daitezke betiko. Horiek klinikoki aztertutako eragin sekundarioak dira: alegia, zientzia ofizialaren barruan egindako ikerketen ondorioak dira.

Ikerketa serioen emaitzak aldizkari zientifiko ofizialetan argitaratzen dira, eta, orduan, datu-baseetan daude kontsultagarri. Izan ere, osasunarekin zerikusia duten aldizkariak PubMed izeneko datu-basean daude bilduta. Ba al dakizue zenbat artikulu zientifiko argitaratu dituen Dukanek? Erantzuna atsekabegarria da: bat ere ez. Hala ere, hemeretzi liburu idatzi ditu, publiko orokorrari zuzenduak. Horien bidez aberastu egin da, eta mozkinak ez zaizkio etorri liburuen salmentatik soilik. Kontua da Dukan dietaren azken fasean, produktu berezi batzuk jatea gomendatzen dela, lortutako pisu-jaitsiera mantentzeko. Zer esanik ez: produktu horiek Dukanen enpresetan baino ezin dira erosi. Negozio biribila!

Pisua galdu nahian dabilzantzat aholku bakarra daukat: mirarizko dietak baztertu, eta dietistarengana jo.

lea artibai
Ikastetxea
Etorkizuna eraikiz

www.learaik.com
info@learaik.com
94 616 9002

BATXILERGOA
LANBIDE HEZIKETA

Erdi maila

- Berri sortzeko instalazioak (iturgintza, eguzki instalazioak, gasa)
- Mantentze eta elektronikako
- Sarbide proba gai mallarako

Goi maila

- Administrazioa eta finantzak
- Telekomunikazioak eta informetika sistemak
- Automatizazioa eta robotika industriala
- Fabrikazio mekanikoko produktoreen programazioa
- Elikagaien balibiltzeko prozesuak eta kaltetza

Arratsaldeak:

- Energi eraginkortasuna eta eguzki energia termikoa
- Web aplikazioen garapena
- Fabrikazio mekanikoko diseinua

ATE IREKIAK: MARTXOAREN 22AN
10.00etatik 13.00etara

Guk!
Lea Artibai!
#gukleartibai